

4 euro

hh  
hkh s

euskal heziketarako aldizkaria

100

2005eko uda



Donostian  
Uztailak 4, 5 eta 6

Goizez  
9:00 - 14:00  
Arratsaldez  
Saio libreak

# Lotara joan aurreko ipuinak

## Haurren heziketarako osagarri

- oinarri teorikoak
- 21 ipuin
- 21 orientabide pedagogiko

### AURKIBIDEA

#### Ohitura onak ikasteko oinarri teorikoak

Bi printzeak. Anaia-arreben arteko jeloskortasuna eta lehia  
Hau da astea, hau! Gaizki lo egiten duen haurra eta beldurra duena  
Bai otordu berezia! Gaizki jaten duen haurra  
Andoni eta bere lehenigusuak. Seme/alaba bakarra  
Maria eta Mahaxi sorgina. Anai-arreba txikiak dituen haurra  
Ipuinetako Aztia. Gaizki lo egiten duen haurra eta beldurra duena  
Bizarturdin dukearen gaztelua. Esana egiten ez duen haurra  
Abenturazale amorratua. Haur ausartegia  
Bizitzaren haziak. Maite dugun norbaiten galera  
Goraziren oinordetza. Maite dugun norbaiten galera  
Barrikadaren taldea. Gurasoak banantzea  
Ander Gandorduna eta printzesa Tuntuna. Konplexuak dituen haurra  
Fneko eta hamsterrak. Haur adoptatua  
Mikaren altxorra. Haur kleptomanoa  
Gorritxo nire adiskidea. Haur hiperaktiboa  
Dena Atzekoz Aurrera Zegoen Herrialdea. Haur gezurtia  
Ipuina paskatu zuen musikaria. Haur bihurria, oldarkorra eta zakarra  
Hiri miragarria. Haur bokartia  
Iartax planetara bidaia. Haur totela  
Alizio dut izena. Haur elbarria  
Beti turrustan eta Bakailao buztan. Enuresia

Orientabide pedagogikoak



# aurki bi -

- 5 **Sarrera**
- 6 **Klarionatik sagura**
- 8 **Neobook**
- 10 **Power Point**
- 12 **Photoshop**
- 14 **Aldizkari tailerra**
- 16 **Ordenagailua musika gelan**
- 18 **Bideoa**
- 20 **Antzerki klown-a**
- 22 **Birziklatuz sortu**
- 24 **Jolas kooperatiboak**
- 26 **Gorputz jarreraren heziketa**
- 28 **Psikomotrizitatea**
- 32 **Ahozko hizkuntza: lehen garraioetik hitzaldira**
- 34 **Dislexia**
- 36 **Disgrafia**
- 38 **Idazketaren didaktika**
- 40 **Ipuinak nola kontatu**
- 42 **Euskararen erabilera nola sustatu**
- 44 **Artearen txokoa**
- 46 **Heriotza heziketan**
- 48 **Adimen emozionala**
- 50 **Harremanak gelan**
- 52 **Estresa irakaskuntzan**
- 54 **Ikas-estilo eta estrategiak**
- 56 **Arratsaldeetako saioak**



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA  
ETA IKERKETA ZENTROAK



ERREKALDE UNIBERTSITATEA,  
UNIBERTSITATEAREN IKERKETA ZENTROAK



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Euskararen Normalkuntzako  
Zuzendaritza Nagusia



**Donostiako**  
Udala

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408  
Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 **Erredakzio burua:** Ainhoa Azpiroz  
**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizagirre **Erredakzio batzordea:** Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. **Aholkulariak:** Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Felix Basurko Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzaba], Juanjo Otaño eta Pruden Sudupe. **Administrazioa:** Arantxa Goiburu. **Diseinua:** TRAM-Grafik **Maketazioa, aurreinpresioa:** Xangorin. **Inprimategia:** ANtza S.A.L. **Azaleko irudia:** VI: Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak (tram grafic). **Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia.** (2005-VI-10). Kopurua: 5.000 ale

**hik hasi**ko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.  
**hik hasi** ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.





## hezkuntza alorra 2005-2006

### graduatu ondoko ikasketak eta prestakuntza iraunkorra

- Informazio eta Komunikaziorako Teknologiak Formazioan. Aditua eta Masterra (\*).
- Hizkuntzen Kudeaketa. Aditua (\*).
- Kulturartekotasuna Euskal Herrian. Aditua eta Masterra (\*).
- Prestakuntza Pedagogikoa (\*)  
(beharrezko titulua DBHn, batxilerrean eta ziklo formatiboetan klaseak emateko).

(\*) Eusko Jaurlaritzak homologatuak, 2004.07.21 Ebazpena (EHAO 2005.04.18).

### graduako ikasketak (lanean ari direnentzat)

- Irakasle Ikasketak – 6 espezialitate goizez edo arratsaldez.
- Psikopedagogian Lizentziatura – On line eta erdi-presentziala, Bilbon nahiz Eskoriatzan.  
Ibilbideak: Hizkuntzen Psikopedagogia.  
Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Amaitu ondoren, aukera izango da habilitazio ikastaroak egiteko Pedagogia Terapeutikoan, eta Entzumena eta Mintzairan.– Eusko Jaurlaritzak homologatua 2004.07.21 Ebazpena.

Inskripzio epea: uztailaren 8 arte  
Matrikula epea: uztailaren 11tik 15era.

Dorleta z/g • 20540 ESKORIATZA  
tel. 943 71 41 57  
sarrera@huhezi.edu



# sarr e -

Uztailak 4, 5 eta 6. Egun seinalatuak izango dira Hik Hasirentzat eta inguruan bilduko diren guztientzat. Batetik, VI. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak egingo direlako Donostian. Eta bestetik, **Hik Hasi aldizkariaren 100. zenbakia** argia ikusiko duelako.

100. alea kalean izateak Hik Hasik 10 urteko ibilbidea egin duela esan nahi du. 10 urte. Inork gutxik uste zuen hainbeste iraungo zuenik. Beharrezkoa ikusten zen euskal heziketari edo irakaskuntzari buruzko aldizkari bat edukitzea. Askok somatzen zuten horrelako tresna baten premia. Baina aldi berean, apustu zaila edo bideragarritasunik gabea zela uste zen orokorrean. Inork ez zion etorkizun handirik ikusten.

Urteak pasa ahala, uste hori bere horretan gelditu da; usteak erdia ustel. Aldizkaria hilero-hilero iritsi da ikastetxe guztietara eta harpidedunen postontzietara. Azken horiekin gogoratzen gara bereziki 10 urte pasa eta gero. Hik Hasi proiektuaren oinarritzko zutabe zarete zuek, harpidedunok, eta bihonetzez eskertzen ditugu zuen ahalegina eta babesa.

Aldizkariaren inguruan beste hainbat proiektu eta ekimen ere sortu dira, eta horietako bat **Hik Hasi Udako Topaketa**

**Pedagogikoak.** Aurten seigarren aldiz bilduko gara Donostian ikastaro sorta baten inguruan. Ikasturte amaierako lanaren zama arinduta, beste umore eta filosofia batekin elkartzen gara urtero.

Beharrak eta gabeziak ikusita, eskaintza zabala eta anitza egin dugu aurten ere, interesak ere hala baitira. Eta betiko gure erronkari eutsiz, nola ez: euskarazko ikastaroak izatea. Oraindik ere gaztelaniaz edo frantsesez eskaintzen diren ikastaroak gehiago dira, eta euskal irakaskuntzan euskaraz lan egiten dugunez, funtsezkoa iruditzen zaigu prestakuntza ere euskaraz jasotzea. Horra hor Hik Hasiren erronka eta ekarpena.

Lanaren ondoren atsedean hartzea gogoko izaten dugu, eta elkarrekin posible bada, hobe. Asmo horrekin antolatu dugu aurten ere azken eguneko bazkaria. Boligrafoa, papera eta ordenagailua utzi, eta platerak eta edalontziak dituen mahaiaren inguruan biltzeko aukera dugu. Ikastaroan ikasitakoak komentatzeko, besteei erakusteko, haiek egin dutenaren berri jasotzeko eta beste hamaika kontutarako tarte aparta ematen du bazkariak eta bazkalosteak. Ondo hasitako gauzak ondo bukatu behar omen dira. Eta 10. urte honek merezi du.



# Klarionatik sagura

**Lekua:** Informatika Fakultatea



## Ozeko aztiaren gazteluan

Ordenagailua Haur Hezkuntzan? Ordenagailua Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan? Hori galdetzen zion duela gutxi bere buruari hainbat hezitzailek, erantzuna garbi jakin gabe. Gaur egun, eta informatikak hezkuntzan eta gizartean izan duen hedatzearen ondotik, inork ez du zalantzan jartzeko tresna hori erabili beharra. Gauzak horrela, tramankulu horien eskutik hasi egin dugu “klarionatik – sagurantzko” alegiazko bidaia, Ozeko Azti Digitala bilatzearen gisako ibilbide korapilatsua. Bidean oztupo asko aurkitzen ari gara: batean gure ekipoak ikastetxeko zaharrenak direla (irakurtzen ez dakien haur batek ez omen du asko behar!), bestean ekipoentzat diru gutxi baldin badago programak erosteko gutxiago daukagula (hara, autoa erosi eta ez dugu gasolinan erreparatu!)... Hala ere, oztupo eta arazoak gainera jakin izan dugu “bal-dosa horiko” bidea egiten: primeran txertatu dugu ordenagailua txokoen metodologian; zeregin honetan lagundu diguten doaneko programak ere aurkitu ditugu; gure curriculum materialari egokitutako CD-ROMak azaldu dira merkatuan; eta harro esan dezakegu beti topatu dugula baso digital ilun honetan aurrera jarraitzeko bideren bat edo beste.

Tipi-tapa Ozeko Aztiaren gaztelura heldu gara. Liburuko (edo pelikulako) lehoiaren modura, ordenagailuarekiko beldurra sentitzen zutenek, galdu egin dute bidean; txorimaloaren antzera beren burua tontoztat hartzen zutenek konfiantza hartu dute; eta azkenik, ipuineko letoizko gizonak bilatzen zuen hura, bihotza hain zuzen ere, aurkitu diegu antipatikoak ziren makina horiei, gutako batzuei orain maiteagoak zaizkigu eta.

Baina gaztelura heltzean gauzatxo batez konturatu gara bat-batean: Ozeko Azti Digitala topatzeko bidean ginenean, bidaiaren zergatia ahaztua genuela; zergatik eta zertarako ari ginen teknologia berri horiek sustatzen gure geletan? Gizartean tresna arruntak zirelako? Eta zergatik ziren tresna arruntak gizartean? Memento batean,



**Fultxo CRESPO**  
Bianako Erentzun ikastolako irakaslea

bidaiaren ajeak ahaztu ditugunean, zera ikusi dugu, orain arte esperimentatutako guztia neurri batean baliagarria bazen ere, hausnarketa puntu bat faltan genuela:

- Tresna hauek ez genituelako **kontzienteki** erabiltzen hezitzaileok: nola ikasten zuten gure ikasleek programen aurrean, zer ikasten zuten, benetan ikasten al zuten zerbait ala jakintzat ematen genuen? Erantzunak ba al dakizkigu? Noizbait egin al dizkiogu galdera horiek geure buruari?

- Tresna horien erabilpena ez zelako **pentsatua**, ezta **planifikatua** ere: ordenagailuarekin aritzea izan baita tresna honekin egindakoaren helburua. Tresna ez da izan hezkuntza helburuak lortzeko **baliabide**.

- Gure geletan **konstruktibismoa** barruraino sartuta egon arren, gure ikasleek pantailaren aurrean pasatzen zuten denbora Klikeko programaren ariketa mekanizistez betetzen jarraitzen genuen.

- Ordenagailua **ikasteko** tresnatzat soilik hartzen genuen eta ahaztua genuen **bizitzarako** tresna ere bazela, eta gainera, azken hori zela bere helbururik zabalduena. Horren ondorioz, ez genuen esplotatzen aplikazio informatiko arrunt askoren (Word, Paint...) balio **kreatibo** eta **funtzionala**, curriculum softwarean baino ez genituelako gure begiak jarrita.

Ozeko Aztiaren istorioak bazuen ondorio edo irakaspen bitxi bat: Ozeko Aztiak ez



**Gure geletako PCak ez dira espero genituen “makilatxo magikoak”, magoak guk geuk izan behar dugu**

zuen protagonisten desioak betetzeko botere magikorik, eurek haien kabuz lortu behar zituzten (baita istorioan lortu ere). Antzeko ondorioa planteatu nahiko nuke bukatzeko dagokigun gaiaren inguruan: gure geletako PCak ez dira espero genituen “makilatxo magikoak”, ez dute gure ikasleak aldatzeko edo azkarrak bihurtzeko ahalmenik (klase partikularra ematen duten irakasleen onerako). Magoak guk geuk izan behar dugu, ordenagailuaren bitartez egin beharreko ekintzak behar bezala pentsatuz eta planifikatuz, ikastetxeko marko antolatuta eta orokorrago batean kokatuta, noski. Ziur naiz, irakasle-ordenagailu-ikasle hiru-kote planifikatuaren eraginez emaitza hobekak lortuko ditugula eta gure hezkuntza helburuak betetzeko orduan **eraginkoragoak** izango garela.



# Neobook

Lekua: **Informatika Fakultatea**







“Multimedien munduan murgiltzeko eta geure programak sortzeko erreminta erraza bezain eraginkorra”

**Neobook** erremintak hainbat gauza egiteko aukera ematen du teknologia berriak erabiliz, arlo guztietan multimediarako hainbat baliabide sortzeko aukera irekitzen baitu. Ikastaroan sortuko dugun aplikazioa ikasgelan lantzen ditugun gaietara eta beharrei benetan moldatua izango da, hizkuntza, edukia eta aurkezpena kontuan hartuta.

Horretarako, hasieratik bi eredu landuko dira: “Ipuin interaktibo bat” multimedia baliabideak erabiliz, eta “ikasgai arrunt bat” multimedia formatuan, dagokion azterketarekin.

Hori guztia aurrera eramateko, honako hauek izango dira gure zereginak:

- Sarrera egin eta gero, CDan dauden materialak aztertuko dira eta, ondoren, biltegian murgilduko gara.

- Programak instalatu eta programaren ezaugarri nagusiak miatuko ditugu.

- Lerrozko egituraz baliatuz, ipuinean irudiak (gif, bmp, jpg formatukoak) eta soinua (mid eta wav) txertatuko dira eta liburuaren edukia gauzatuko dugu.

- Aurkezpena, testua, hizki mota, hondokak, trantsizioak, barne-bideak, animazioak, kar artxiboak, musika eta grabatu ditugun soinua artxiboak gure lanean sartuko ditugu.

- Irudiez baliatuz ipuinari amaiera interaktiboa emango diogu, prestatutako galderetara erantzuna jarritz.

- Ikasgaiarekin batera, testuak eta zenbakiak dituzten aldagaiak eta baldintzak landuko ditugu.

- Amaieran, azterketa eredu batzuk konponduko ditugu.



## Jose Manuel BELTRAN

Gasteizko Antonio Lopez de Gereñu ikastetxe publikoko irakaslea

Ikasgaiaren diseinua zuhaitzarena izango da. Diseinua aberasteko baliabide gehiago erabiliko ditugu irudiei, testuei, agerpenei, hiperestekei eta loturei tratamendu berezia emanez. Horrela, ikasleei informazio erakargarriagoa emateko aukera izango dugu.

Emaitzak eta azterketaren nota ordenagailuak emango dizkigu.

Denboraren arabera, ahal bada, eginda dauden programei begirada bat botako diegu. Ondoren, ideia eta planteamendu berriak azaltzeko unea izango da.

Aipatutako lana gauzatzeko Neobook-ek eskaintzen dituen tresna nagusiak ezagutu eta menperatuko ditugu. Besteak beste: liburuaren ezaugarriak, pantailak, tamainak, tresna panela, koloreak, hizkuntza, ekintzak, nabigazioa, artxiboak, Internet, kontrola, botoiak, hiperestekak, mezuak, objektuak, beste programetako loturak, baldintzak, aldagaiak, pantailaren babeslea...

Esan beharrik ez dago, programak konpilatu bezain pronto, gure lanak itxura profesionala edukiko du amaieran.

**Bi eredu landuko ditugu: ipuin interaktibo bat multimedia baliabideak erabiliz, eta ikasgai arrunt bat multimedia formatuan, dagokion azterketarekin**



# Power Point

**Lekua:** Informatika Fakultatea



## Power Point aplikazioa irakaskuntzan

Power Point irakaskuntza esparruan erabiltzearen helburu nagusia aurkezpen txukunak sortzea da. Izan ere, Microsoft-Office bildumak eskaintzen duen Power Point aplikazio hori, multimedia aurkezpenak egiteko aukera ematen duen programa indartsua da. Garai batean irakaskuntzan horren erabiliak ziren diaporama eta gardenki haien baliokide litzateke Power Pointen filosofia. Ideiak erraz antolatzen, sendo ilustratzen eta profesionalki komunikatzen laguntzen du. Bereziki gomendagarria eta erabilgarria da jendaurreko aurkezpenak egin behar direnean.

Betiko eta ohiko irakaskuntza bideetara soilik mugatu ordez, ikasi nahi den hori hainbat kanaletan aurkezten zaigunean aprendizaiaberastentzen zaigula esatea, gauza jakina da. Power Point oso tresna egokia da multimedia arlorako, ia media guztiekin lan egin baitezake: irudiak, audioak, bideoak, animazioak, hiperloturak...

Power Pointekin diapositiba digital eta animatuak eraikitzea lan eroso eta ludikoa da. Ideiak antolatzeko, ilustratzeko eta egoki garatzeko tresna eraginkorra da. Gelan aurkezpenak egiteko balio du, era hunkigarrian komunikatzera iritsiz. Fitxategi berean testua, irudiak edota eskemak elkar daitezke. Gure adierazpenak aurkezpen horiekin lagunduta egiten baditugu, azalpenek arrakasta handiagoa izango dute.

Aurkezpen interaktiboak sortzeko, Power Point bera baino osatuago eta ahaltsuago diren aplikazio gehiago badago merkatuan (Director, Flash...). Baina Power Pointek bere alde duena, erabiltzeko duen erraztasuna da, aurkezpen oso interesgarriak lortuz. Irakaskuntza alorrean horren ezaguna dugun Worden erabiltzaile arruntena ere, berehala ohituko da aplikazio honetara, eta laster batean benetako multimedia ekoizpen osoak sortzen ikusiko dugu.

Aurkezpena eraikitzeko nahi adina diapositiba sor ditzakegu. Diapositiba horiek euskarri mota askotarikoetan finka daitezke: gardenkiak izan daitezke, edo diapositiba arruntak, eta, jakina, pantailan edo proiektzio



**Joxin AZKUE**  
Hautzaro ikastolako irakaslea eta  
Ikastolen Elkarteko Informatika taldeko kidea

bidez aurkez daitezke. Orri horiek sekuentzia bat osatuko dute –sarritan, zenbait ibilbide ere aurreikus daitezke- eta proiektatzeko tresna batez ikusiko ditugu. Aurkezpenek, maiz, oso gidoi ezagunak jarraitzen dituzte eta lana aurreratu nahirik aurre-diseinu eta txantilo ugari eskaintzen dira. Gainera, Power Pointek, aurkezpenaren animaziorako eta diapositiben trantsiziorako ere oso tresna politak eta interesgarriak eskaintzen ditu. Beraz, gogoia izanez gero, nahi duguneraino eraman dezakegu gure sormen gaitasuna. Eta hori guztia, aurkezpen horiek prestatzeko eta antolatzeko denbora gehiegi erabili gabe.

Bereziki interesgarria da Power Point irakaskuntzan. Oso gutxi izango dira arbelik gabe eskola ematen dakiten irakasleak, gehien-gehienok, zerbait zirriborrazeko, haren beharra dugu etengabe. Eta hala ere, ezin dugu denok esku oneko marrazkilariak izan, eta are gutxiago bat-bateko diseinatzaile eraginkorrak. Eredua aurretik egitea kalitatearen berma bilaka daiteke (garbitasuna, antolakuntza, hausnarketa... ziurtatuz).

Gainera, irakasleak bere lanerako erabil dezakeen bezalaxe, ikasleek ere etekin handia atera diezaiokete Power Pointi. Beraien lan eta txostenak, paperezko euskarria gaingitu eta, sarritan, multimedia produktuak izatera irits daitezke. Horrek guztiak, gainera, irakaskuntzaren esparruan betidanik oso interesgarritzat jo ditugun hainbat zeregin apli-



## Power Point irakaskuntza esparruan erabiltzearen helburu nagusia aurkezpen txukunak sortzea da



katzera bultzatzen gaitu: zerbaiten inguruko informazioa bilatu, laburtu, eskema bihurtu, gidioak eta hizketaldiak prestatu, jendaurrean aurkezpena gauzatu...



# Photoshop

Lekua: **Informatika Fakultatea**



Zein da, gaur egun, irakasleen esku eskanerrik edo argazki-kamera digitalik ez duen ikastetxea?

Baina, askotan, tresna horiek oinarriko terminologia asko ezagutu gabe erosten dira, hots:

- Tamaina
- Irudiaren formatua
- Erresoluzioa
- Zoom optikoa
- Zoom digitala

Terminologia hori ongi ulertzea (ikastaro honen helburuetariko bat) laguntza handikoa izango zaigu, bai eskanerra edo argazki-kamera erosterakoan, bai tresna horiek erabiltzerakoan, hezkuntza ikuspegitik eman nahi dizkiegun helburuak kontuan izanda.

Irudiak formatu digitalean eduki ondoren (eskanerra edo argazki-kamera digitala erabiliz), derrigorrezkoa da era egokienean lantzea, eman nahi diegun pedagogia ikuspuntuaren beharretara moldatzeko.

Duela gutxira arte profesionalen eskuetan soilik zegoen irudi tratamendurako puntako programa, egun edozein zaleturentzat eskura dago.

Ikastaro honen oinarri den Adobe Photoshop© programaz ari gara. Programa honen bertsio murriztua (light) argazki-kamera digital gehienekin batera eskainiko digute.

Irudiak lantzeko oso programa erabilgarria da eta aukera zabalekoa; nahiz eta hasierako urratsak menderatzea zail samarra izan.

Oztopo hori gainditzeko, ikastaro honetan:

- Ikastarokideari irudiak lantzeko oinarriko edukiak eta trebeziak eskainiko zaizkio.
- Programa eremu pedagogikoetan nola erabili izan den ikusteko eredu praktikoak aurkeztuko dira.
- Ariketa anitz egingo dira, horrela ikastarokideak eskanerra edo argazki-kamera batez lorturiko irudi digitalekin egin daite-



**Txomin BALZA**  
Zarauzko Berritzeguneko IKT teknikaria

keena ezagut dezake.

Ikastaro honetaz zera espero dugu:

- Adobe Photoshop© programaren oinarriko erabilerarako errekurtsoak azaltzea.
- Honako lanak gauzatzeko programaren baliagarritasuna azaltzea:
  - + Irudiak webera egokitu.
  - + Irudiak aurkezpenetara egokitu.
  - + Ipuinak sortzeko irudiak nola landu.
- Ikastarokideengan programa honetan (edo irudiak lantzeko beste programetan) aurrera egiteko behar den grina sortzea.



**Irudiak lantzeko oso programa erabilgarria da eta aukera zabalekoa, nahiz eta hasierako urratsak menderatzea zail samarra izan**





# Aldizkari tailerra

**Lekua:** Informatika Fakultatea





Ikastetxeentzako webguneen  
lanketa [Berria.info](http://Berria.info)-n

Teknologia berrien garaiak erabateko eragina izan du komunikabideen esparruan eta funtzionamenduan. Egun, duela hamar urte baino azkarrago eta errazago bideratu dezakegu informazioa, eta ondorioz, gero eta gehiago dira barne edo kanpo komunikaziorako komunikabide propioa sortu duten elkarte, talde edo enpresak.

Horretan guztian berebiziko zeresana izan du Internetek. Paperezko euskarriak dituen hainbat oztopo saihestuz, aukera sorta zabala eskaintzen du, hala nola webguneak edo weblogak sortuz. Ahalegin eta inbertsio nahiko apalekin emaitza bikainak lor ditzakegu talde eta kanpo komunikazioan.

Ikastetxeek ere egin dute jauzi Internetera, baina orokorrean, asko dago oraindik egiteke. Hori dela eta, **Berriak** aukera berri bat jarri nahi du ikastetxe guztien eskura: webgune propioa izatea **Berriaren** webgunearen ([www.berria.info](http://www.berria.info)) barruan.

Nahi duen ikasketetxeak bere weba sortu eta lantzeko abagunea izango du, modu erraz eta azkarrean. Hala, ikastetxeko albisteak, ikasleen lanak, zentroaren iragarpenak, argazki galeriak eta beste hainbat berri sareratu ahal izango dituzte **Berriaren** webgunean, erabat doan. Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek tresna berri bat izango dute ikastetxearen jarduera eta lanak ezagutzeko. Ikastetxearen erakusleihu aparta izango da bertakoentzat, eta baita kanpokoentzat ere.

Halaber, ikasleekin lan egiteko tresna ezin hobea izan daiteke. Teknologia berrien funtzionamendua oso modu praktikoan ikasten duten bitartean, hainbat gai landu eta egiten dituzten lanak ikusgai jarri ahal izango dituzte. Webaren eduki eta osaketa ikastetxearen esku egongo da erabat, eta nahi duenean, eta nahi bestetan, eraberrietzeko aukera izango du.

Webgunearen aukerak eta erabilpenak ikasteko, **Berriak** ikastaro praktikoa eskai-



**Xabier LERTXUNDI**  
Donostiako Belen ikastetxeko irakaslea

niko du Hik Hasiren topaketa hauetan. Webguneak sortu eta lantzeko jakin-mina duten irakasleei zuzenduta dago ikastaroa. Ez da beharrezkoa informatikako gaietan aditua izatea, oso oinarrizko ezagupenetatik abiatuko baikara.

Ikastaroak hiru ardatz nagusi izango ditu: webgunetan erabili ohi diren testu eta irudien lanketa, Publisher programak webguneak sortzeko ematen dituen aukeren azalpena eta erabilera, eta azkenik, ikastetxearen weba **Berriaren** webgunera lotzeko eta kudeatzeko prozedura.

Besteak beste, artxiboen orrialdeak sortzen, orrialdeen itxura eta elementuak lantzen, eta irudiak tartekatzen ikasiko dugu. Ikasle bakoitzak ordenagailu bana izango du ariketak oso gertutik jarrartzeko, eta lehen unetik ikasitakoa praktikan jartzeko. Ikastaroaren amaieran ikasle guztiek balizko webgune bat egingo dute.

Ikastaroaren xede nagusia **Berriak** eskaintzen duen gunea lantzen ikastea bada ere, ikasleek Publisher programa ikastearekin batera beste hainbat aukera ere ikasiko dituzte, hala nola irudiak eta testuak tartekatzen afixak edo bestelako euskarriak egiteko.



**Berriak aukera berri bat jarri nahi du ikastetxe guztien eskura: webgune propioa izatea **Berriaren** webgunearen ([www.berria.info](http://www.berria.info)) barruan. Horrek ematen dituen aukerak eta erabilpenak ikasiko dira ikastaro honetan**

# Ordenagailuaren erabilera musika gelan

Lekua: **Ekintza ikastola**





Egun, bizi garen egoera aztertuta, esan genezake ordenagailua gero eta tresna beharrezkoagoa dugula eguneroko lanean; eta, ez badugu erabiltzen, ziur egon guretzat egokia izan daitekeen programarik aurkitu ez dugulako dela.

Ikastaro honetan hainbat gauza jorratuko ditugu, baina, batez ere, informatika musikalak eskaintzen dizkigun aukerak aztertuko ditugu, norberak bere beharren arabera nahi duen programa erabiltzeko.

Horretarako, erabat desberdinak diren programa musikalak jorratuko ditugu, eta nahiz eta beste batzuk aztertu ez, beraien aukerak ezagutuko ditugu.

Belaunaldi berriari ordenagailu hitzak ez dio inongo beldurrik ematen, beti ezagutu izan duen tresna delako; baina guretzat beste zentzu bat hartzen du. Horrek ez du esan nahi ezinezkoa zaigunik mundu horretan sartzea; alderantziz, bakoitzak ikusi behar du noraino eta zenbaterainoko laguntza eman diezaiokeen ordenagailuak. Garbi izan ordenagailua guri laguntzeko tresna dela, eta hori kontuan hartuz, asko edo gutxi erabiltzea gure eskuetan egongo da.

Erabiliko dugun lehenengo programa **dance machine** izango da. Multimedia den programa honek oso erabilera erraza du. Musika *techno-dance* egitea posible da software honekin. Egiten ditugun abestiak CD batean sartuko ditugu, nork bere etxean lasai asko entzuteko. Ezaugarri bezala, esan dezakegu bat-bateko emaitza "ikusgarria" ematen duen programa dela, ikasleekin erabiltzeko oso aproposa, alegia.

**Encore** izango dugu gure bigarren programa. Partiturak editatzeko eta, era berean, sekuenziatzaile midi moduan gure grabazioak egiteko balioko digu. Partitura mota errazekin hasita, pixkanaka konple-



## Xabier ZABALA

Ekintza ikastolako musika irakaslea

xuagoak jorratuko ditugu. Editore honekin hainbat gauza egingo ditugu eta gure eguneroko lanerako oso baliagarria izango da.

Oso programa intuitiboa da; horregatik izango da, agian, hain erraza erabiltzeko. Baita ere, komenigarria da esatea, Lehen zein Bigarren Hezkuntzan programa hau lantzeko aukera izan dezaketela ikasleek, oso interesgarria izan daitekeelako beraien-tzat.

**Internet** mundua baliagarria da arlo guztietan eta, noski, bereziki musikan. Hori da guk jorratuko duguna. Izugarrizko atea dugu gure aurrean; ireki eta barruan duguna ikusi besterik ez dugu egin behar: informazio kopurua oso handia da eta eskolan praktikan jarri nahi duguna garbi badugu, informazio hori aztertu, jorratu eta martxan jartzea posible dugu.

Midiak, musika informazio gisa, bilatu eta aurkituko ditugu. Horiek izango dira gure informazio iturririk garrantzitsuenak: partiturak aterako ditugu, "play-back"-ak landuko ditugu jaialdiak egiteko eta, aldi berean, karaokeak bilatuko ditugu gauza bera egiteko.

Hori guztia kontuan hartuz, mundu interesgarri baten aurrean gaudela esan dezakegu. Ordenagailua tresna bat denez, nola erabili behar dugun jakitea soilik falta zaigu; bakoitzaren beharrak aztertu eta horientzat irtenbide bat dugula jakin behar

**Bakoitzak ikusi behar du noraino eta zenbaterainoko laguntza eman diezaiokeen ordenagailuak. Hori jakinda, erabat desberdinak diren programa musikalak jorratuko ditugu.**



# Bideoa

Lekua: **Ekintza ikastola**



Beste osagaiekin batera, bideo digitala material didaktiko bezala erabil daiteke. Horretarako, ordea, azken teknologiak eta erabilpenak ezagutu behar dira, eta hori da ikastaro honetan landuko dena. Bideo digitalaren edizioa eta DVDa nola egiten diren irakatsiko da.

Horretarako, edizio digitala egiteko behar diren bitartekoak erabiltzen irakatsiko da; bereziki Studio 9 programa eta horren osagarriak.

Studio 9-ren bitartezko Edizio Digital Ez Linealak nahasketa mahai tradizionala ediziorako sistema digital baten bidez konektatutako bi bideorekin ordezkatzeko ahalbidetzen du. Aldi berean, post-produkzio on baterako behar den guztia eskaintzen du: trantsizioak, filtroak eta abar.

Edizio Digital Ez Linealak, hots, editatzeak edo Studio 9-rekin lan egiteak zera dakar: lehenengo eta behin, bideoak, argazkiak, audioak, animazioak eta abar lortzea. Bigarren urratsean elementu horiei guztiei forma emango zaie editaiaren bitartez. Kontuan hartu behar dugu zenbait elementuri trataera berezia eman beharko zaiela: formatu aldaketa, filtroak, ukituak... Azkenik, behin elementu guztiak nahastutakotan, esportatu egingo ditugu; beste modu batera esanda, nahi dugun sistemara aterako ditugu: DVD zintara edo avi artxibora gero aurkezpen multimedia batean sartzeko.

Azken emaitza edizioan jartzen den interesaren eta ahaleginaren araberakoa izango da. Studio 9 programa zabala da, beste "plug-ins" batzuetara irekia dago. Modu horretan, "plug-in" egokia aurkituz gero, bertsio estandarrean irudikaezinak diren gauzak egin daitezke.

Studio 9n lehen zatia da gogorrena; hots, lanerako kriterio teknikoak ezartzea. Baina, jakin beharra dago. Gainerakoa, nahasi samarra izan litekeen arren, dibertsigarria, ulertteraza eta praktikoa da: trantsizioak egitea, planoak kentzea, filtroak ezartzea,



## Pelaio EIZAGIRRE DE GARATE

**PADEko (Heziketarako Ikus-entzunezko Digitalen Produkzioak) errealizadorea eta gerentea**

espazioak animatzea...

### Edukiak

Ikastaroan landuko diren edukiak hauek izango dira:

#### - Lan ingurunea:

\* Gelaren, hornitegiaren eta inguruko eraginkortasuna.

\* Bideo digitalera sarrera: oinarriak, monitoreak, txartelak, konpresoreak, formatuak.

\* Bideo digitalaren edizioaren kontzeptuak; linealtasun eza.

#### - Studio 9 programa:

- \* Lan ingurunea
- \* Lanerako tresnak
- \* Monitoreak eta aurreirudikatzea
- \* Denbora lerroak

#### - Proiektuak:

- \* Proiektu berria ireki
- \* Proiektu baten osagaiak
- \* Proiektuaren egitura
- \* Proiektua gorde

#### - Bideoarekin irudiak hartzea:

- \* Bideoaren atzemate txartelak
- \* Hardware eta software-aren bidezko ulertzea
- \* Atzemate iturriak zehaztea



\* Atzemandako bideoa gordetzea

#### - Bideo kanalak:

- \* Bideoaren stream sartzeko kanaletan
- \* Irudi finakoak sartzeko

#### - Bideoaren editaia eta muntaia:

- \* Editatzeko erremintak erabilpena
- \* Mozketa
- \* Lekuz aldatzea
- \* Denbora doitzea
- \* Desegitea

#### - Filtroen erabilpena

#### - Gardenkien erabilpena

#### - Bideo animazioa

#### - Soinu kanalak

#### - Izenburuak

#### - Proiektuak esportatzea

#### - Bideo formatuak:

- \* Formatu motak
- \* Bideo euskarriak
- \* CDItik DVDrara



# Antzerki klown-a

Lekua: **Zurriola ikastola**







**Joserra FACHADO**  
Aktorea eta irakaslea

Klown ikastaroa egin nuen lehenengo aldian liluratua sentitu nintzen. Aurretik aktore moduan, beste estilo asko jorratuta neuzkan, baina klownak ireki dizkidan bideak izugarriak izan dira. Hasteko, bakoitzaren izaeratik ateratzen da pertsonaia, eta beraz, lan naturala da, eta estiloa ezagutu eta gero izugarritzko tresna da emozioak eta egoerak sentitzeko eta adierazteko. Zer gehiago eska diezaiekegu gure ikasleei?

Ikasleekin klowna lantzen duen inor ez dudala ezagutzen aitortu behar dut, eta berez arlo horretan nahiko autodidakta izan naizela ere bai. Baina urtero ikusten ditut nire ikasleak, estilo hori landu eta gero, desinhibituak, inongo lotsarik gabe aktuatzen, benetako egoerak sentitzen, emozioak indar bereziz adierazten.

Ez naiz oso teorikoa, are gehiago, teoria hori gero praktikara eramatea ezinezkoa bada, ez zait interesatzen. Horregatik, ikastaroa oso praktikoa izatea nahi dut, zuek gero, bakoitzak bere mailan, ikasleekin lantzeko.

Badakit hiru egun gutxi direla, baina gutxienez lehenengo kontaktua izango da, oinarri zehatz eta garbi batzuekin, gero zuek beste urrats batzuk emateko, beste ikastaro batzuk egiteko, edo agian, ikasturtean elkartzeko eta gure esperientziak trukatzeko.

Klown estiloa lantzen hasiko gara, zer ezaugarri dituen aztertzen eta, garrantzitsuena, esperimentatzen. Horretarako, beroketak, jokoak, ariketak... egingo ditugu eta egoera askotarikoetan klownak jartzen, ikusleekin kontaktua sortzen, bakar-kako sarrerak egiten, bikotean lantzen... arituko gara. Horrela, bakoitzak bere barru-

ko klowna ateratzea lortuko dugu. Ondoren, arropa desberdinak jantziko ditugu. Segur aski bat-bateko saio batzuk egiteko prestatuta egongo gara. Testu simple batzuk ere lantzea gustatuko litzaidake, horrela, bigarren egunean ariketa batzuk egin ondoren, antzerkitxo batzuk egiteko prest egoteko. Azken finean, euskara, rolak, pertsonaiaketaabarklownetikerelanduditzakegula konturatuko gara, eta baita gazteei axola zaien edozein gai ere ikus dezakegula.

Askotan pailazoa haur bat bezalakoa dela esaten da, eta iritzi horrek badu funtsik. Klownaren munduan haurren ezaugarri asko daude. Esate baterako, haien txantxak, erantzunak, umore aldaketak, bat-batekotasuna. Guri gehien interesatzen zaiguna haurrek jolasteko eta esperimentatzeko duten gogoia da. Horregatik, esperientzia honetan sinesten dut, eta ikastoletan, eskoletan, aisialdiko taldeetan edota antzerkiko tailetan erabil daitekeela uste dut.

Mesedez, ez beldurrik izan ikastaro hau egiteko, gure klowna ezagutzeko abentura alai eta askatzailea burutuko dugu. Ez dugu asko exijituko, jolasteko gogoia izatea eta sentikor izatea baino ez. Animo.

**Klown ikastaroa egin nuen lehen aldian liluratuta sentitu nintzen. Ireki dizkidan bideak izugarriak izan dira. Urtero ikusten ditut nire ikasleak, estilo hori landu eta gero, desinhibituak, inongo lotsarik gabe aktuatzen, benetako egoerak sentitzen, emozioak indar bereziz adierazten.**

# Birziklatuz sortu

Lekua: **Ekintza ikastola**



"Birziklatu plastika eta inguru-  
nea lotuz".  
Lehen Hezkuntzan, birziklatze  
zein plastika arloan hutsunea  
zegoela eta irakasleriaren for-  
mazio eskaerak bazeudela iku-  
sita, tailer hauen ideia sortu  
zen.

Argi dago bai etxeetan eta bai eskoletan  
zabor asko sortzen dugula, eta gure haurrei  
zabor bakoitza bere eduki-ontzira botatzeko  
edota horrenbeste zabor ez egiteko erratea  
soilik ez dela nahikoa. Baina zabor horiei  
beste erabilera bat ematen badiegu eta hain-  
bat material zein teknikekin diseinu propio  
bat sortu, bi arlo hauek uztartuko genituz-  
ke: birziklatzea eta plastika.

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek  
beraien ikasleei modu praktikoan (hau da,  
plastikaren bitartez) birziklatzea zer den  
erakustea da gure proposamena. Beraz,  
ikastaroa erabat praktikoa izango da eta  
esperimentazioa izango da oinarria. Modu  
horretara, sortu ahala, materialen baliabide  
plastikoaz ohartuko gara eta hainbat tekni-  
ka ikusiko ditugu.

Ikastaroaren edukiak honako hauek dira:

1.- Papera birziklatzeko prozedura ezagu-  
tu eta landu:

- Papera egin.
- Ehundura, formatua eta koloreak landu.
- Paper birziklatua euskarri gisa hartuz  
konposaketak sortu.

2.- Kartoiak erabiliz markoak eta karpe-  
tak egin.

3.- Egunkari zein plastiko zaharrek, komu-  
neko paperaren kartoiarekin, kaxekin  
eta zaborretako ontziekin objektuak sortuz,  
bolumena landu.

Horrekin guztiarekin bete nahiko geni-  
tuzkeen helburuak hauek izango lirateke:

\* Haurtzarotik birziklatzea modu prakti-  
koan landuz, inguruneaz gehiago jabetzea.



**Amaia ZINKUNEGI**  
Arte Ederretan lizentziatua



**Ines GEREKA**  
Biologian lizentziatua

\* Gaur egun bizi dugun "erosi eta bota"  
kultura kontsumitzaile honetaz hausnar-  
tzea.

\* Botatzen ditugun objektuei erabilera  
berri bat emanez, bere balioaz ohartzea.

\* Birziklatzean diseinu berriak landuz  
sormena zein trebetasuna sustatzea.

\* Birziklatzean sortzen diren arazo tekni-  
ko zein estetiko aurre eginez, plastika  
"kontzeptuan" sakontzea.

\* Zabor artean, esperimentazioaren eta



**Zaborrei beste  
erabilera bat  
ematen badiegu  
eta hainbat  
material zein  
teknikekin disei-  
nu propio bat  
sortu, bi arlo  
hauek uztartuko  
genituzke:  
birziklatzea eta  
plastika**



# Jolas kooperatiboak

Lekua: **Ekintza ikastola**





Ikastaro honetan jolas kooperatibo eta sortzaileetan oinarritutako interbentzio psikozentzuailearen adar bat aurkeztuko dugu. Beronen helburua garapen soziala, afektibo-emozionala eta haurren sormena bultzatzea da.

80ko hamarkadatik hona Haur eta Lehen Hezkuntzako hainbat taldetan ezarri dugun proposamen honen oinarri teorikoa ikerketako hiru korrante handiren ondorioetan datza. Lehenengo eta behin, haurren jolasen inguruko ikerketen ondorioak; giza garapenerako funtsezko jarduera da, haurraren garapen integralean eraginkortasunez eragiten baitu, hau da, haurraren garapen psikomotor, intelektual, afektibo-emozional eta sozialean. Bigarrenik, portaera sozialean aldeko ikerketen ondorioetan oinarritzen da; hortik atera dira garapen pertsonalaren eta sozialean hainbat faktoretan nolako onurak dituen heziketaren testuingurutan kooperatzeak versus lehiatzeak. Eta hirugarrenik, sormenaren gaineko ikerketak daude; ikerketa horiek haurraren sormenaren garapenean entrenatzeak duen eraginkortasuna baieztatzen dute.

Jolas kooperatibo eta sortzaileen programetako jarduerak bi helburu nagusi dituzte. Lehenengo, beren hazkundean arazorik ez duten haurren garapen integrala bultzatu nahi da, bereziki alderdi sozio-emozionalean eta sormenaren garapenean eraginez. Bigarrenik, programa honek funtzio terapeutikoa dauka, jolasaren esperientziaren bitartez lagunekin interakzio arazoak eta beren garapenean bestelako arazoak dituzten haurrak sozialki integratzen direlako. Bi helburu nagusi horiez gain, beste hainbat zehatzago ere biltzen ditu programak.

Oro har, programako jolasak komunikazioa, kohesioa, konfiantza eta sormenaren garapena estimulatu dituzte. Eta horren azpian elkarrekin jolastuz eta asmatuz onartzeko, errespetatzeko eta partekatzeo ideia dago.



**Maite GARAIGORDOBIL**  
EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea

Programa honetarako sailkatutako jolas egiturazko bost ezaugarri dituzte:

1- Parte-hartzea: jolas hauetan taldeko guztiek parte hartzen dute, ez da inoiz inork kanporatzen eta ez du inork irabazi edo galtzen. Xedea taldeko helburuak lortzea da, eta horretarako, taldekide bakoitzak beharrezkoa den eginkizuna du jolasaren barruan.

2- Komunikazioa: jolas guztiek talde barruko komunikazio prozesuak egitura-tzen dituzte.

3- Kooperazioa: jolas gehienek harreman dinamika estimulatu dute. Horrek taldeko helburua lortzeko elkarri laguntza ematea dakar.

4- Fikzioa eta sormena: errealitatea edo egia "balitz bezala" jolasten da, hots, elefanteak, hegazkinak, piratak edo artistak... bagina bezala, eta elementu berriak sortzeko estimuluak ere konbinatu dira.

5- Dibertsioa, ondo pasatzea: jolas hauen bidez haurrek taldekideekin positiboki eta era konstruktiboan arituz ondo pasa dezaten ahalegintzen gara.



**Ainhoa DURÁ**  
Haur psikologoa

ten ahalegintzen gara.

Programak hainbat dimentsiotan (ahozkoa, dramatikoa, plastiko-konstruktiboa eta grafiko-figuratiboa) komunikazioa, gizartearen aldeko portaera eta sormena estimulatzeko 60 jolasez osatuta daude. Programako ekintzak bi modulu edo talde handitan banatu dira:

1- Komunikazioa eta gizartearen aldeko jarrera jolasak.

2- Sormen jolasak.

Programa hau gelan ezartzeak hiru fase eskatu ditu: testaren aurreko ebaluazioa, jolas programaren ezarpena eta testaren ondorengo ebaluazioa.

Egin diren ikerketek enpirikoki frogatu dute jolas kooperatiboek eta sortzaileek garapenean duten garrantzia. Izan ere, haurraren sormenerako eta garapen sozio-emozionalerako baliagarri diren interbentzio psikozentzuaileerako tresna ludikoak sistematizatu dituzte.



# Gorputz jarreraren heziketza

**Lekua:** Ekintza ikastola







Gaur egun, kalean, eskolan zein lantokian sarri askotan entzuten edo irakurtzen dugu ergonomia hitza. Orain dela 10 urte, berriz, oso arraroa zen ergonomiari buruzko artikulu, ikerketa edota libururen bat aurkitzea.



**Garikoitz LOPEZ DE MUNAIN**  
Fisioterapeuta

**Gaur egun modan jarri den ergonomia zer den jakingo dugu, baina praktikaren bidez, hots, gorputz luzaketak eta abar eginez**

Zer gertatu da gizartea gai horietaz arduratzen hasteko? Zergatik dago orain hain modan ergonomia eta gorputz jarrerren heziketaz hitz egitea? Jakin-min horren atzean, ia gehienetan bezala, interes ekonomikoak daude. Gai horiei buruz aurki dezakegun bibliografia ugariko hainbat ikerketaren arabera, ergonomia eta gorputz jarrerren heziketan inbertitzeak izugarriko diru aurrezpena ekartzen die gobernuei.

Ikastaroko hiru egunetan landuko ditugun jarduerak eta egingo ditugun gogoetek helburu zehatz baina,aldi berean, zabala dute: **parte-hartzaileak gai honen inguruan kontzientziatzea, hain zuzen ere (kontzientzia praktikan jartzea)**. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu, lehenik eta behin, jakitea zuontzat zer den ergonomia eta zein diren ikastaroan zehar bereziki landu nahi zenituzketen gaiak.

Halaber, ikastaroan **luzaketak** nola egin ikastea izango dugu helburu nagusi. Orokorrean bi korronte nagusi bereiz ditzakegu irizpidetzat luzaketak egiteko modua hartuta: batetik, **luzaketa analitikoak**, hots, gihar bakoitza espezifikoki luzatzen den luzaketa mota; eta bestetik, **stretching global eta aktiboa** edota **luzaketa orokorra** deritzona. Luzaketa mota honetan giharrak funtzio komunak dituzten gihar kateetan biltzen dira.

Agian orain arte luzaketei buruz geneukan ezagupenean oinarrituz gero, guretzat oso garrantzitsua den alderdi bat faltako litzaiguke kontuan hartzea: **ARNASKETA**. Uste dugun baino askoz ere garrantzitsua da luzaketa egiten ari garen bitartean arnasketa sakon eta lasaia egitea.

Azken finean, gizakiok egiten dugun

orok (baita luzaketek ere) **bizitzeko ezinbestekoak diren alderdiak** bermatzea du helburu. Honako hauek hartzen dira bizitzeko ezinbesteko alderditzat: **arnasketa, elikadura, mugimendua, erlaxazioa eta ugalketa**.

Eta jakina, **erlaxazioari** ere eskainiko diogu tarte bat ikastaroaren programan, aurreko guztiarekin oso harreman estua duela uste dugulako.

Bestarik gabe gurekin esperientzia polit





# Psikomotrizitatea

Lekua: **Pedagogia Fakultatea**





Mugitu, jolastu, pentsatu,  
berraseguratu.

Haurrak apendizaiak garatu ahal izateko bere mugimenduaren, hau da, bere ekintza-  
ren errepresentazio mentalaz jabetu beharra  
dauka. Pentsamendura iristeko, aurrez,  
ekintza hori mugimenduan baneraturakoa  
izatea ezinbestekoa da irudiak sortzeko, eta  
ondoren horiek izango dira irudikatuko  
dituenak, mundu sinbolikoa osatuko dutenak.

Haurrak bere garapenean, bere heldutasun  
prozesuan, eboluzio logikoa jarraitzen  
du dakarren potentzialtasunaren arabera.  
Jakina da, heldutasun neurologikoa, psiko-  
logikoa eta kognitiboa batera doazela bal-  
din eta dena normaltasunez badoa hazte  
prozesuan. Ezin dugu ahaztu jaiotzatik  
hainbat eta hainbat hilabetetan aurrera,  
bere heldutasun ezak haurra menpeko izate-  
ra lotua daukala, bestea behar duela biziko  
bada. Heldutasun falta horregatik “angus-  
tiak” sortzen dira. Angustia, berez, garapen  
ebolutiboan sortzen den egoera normala da  
baina, hori bai, baretzen joan dadin eustea  
eta sostengua behar du.

Hasiera-hasieratik haurraren bizipenak  
sentsoremotoreak eta emozionalak dira.  
Bere beharrei besteak erantzuten dienean,  
hark erabilitako modua, tonua, afektua  
jasotzen du eta hori guztia haurraren gorpu-  
tzean, bere osotasunean inskribatzen da.  
“Haurra gizaki heldugabea, oso menpekoa  
eta esperientziak eduki eta batzen dituena  
da” (D. W. Winnicott). Dena ondo badoa,  
“angustiek” sortutako tentsio egoerak bare-  
tu egingo dira, distentsio horretan fisikoki  
zein psikologikoki plazerak eta ongizate  
bizipenak hartuz lekua, bere beharrak bete-  
ta sentitzen dituelako. Hori horrela ez  
denean, “angustiak” areagotu egin daitezke  
(beti bizipen indibidualaren arabera) des-  
plazerak sortutako tentsioak gorputza  
uzkurtzera eraman dezakeelako. Esan daite-  
ke “angustien” intentsitatean datzala aurre-  
rantzean heldutasun prozesuan azaltzen



**M. Ezozi ARIZAGA**  
Irakaslea eta psikomotrizitate terapeuta

diren zenbait zailtasunen sorrera ulertzea.

Gorputza da, halaber, arlo kognitiboan  
sustraiak errortzeko bitartekaria, den-dena  
gorputzetik igarotzen delako: oinarrizko  
premiak betetzetik hasita (jana, loa, zain-  
tzak...), komunikazio sistema bera ere har-  
tuz (irribarrea, negarra, bokalizazioak,  
mugimendu motrizak...), poliki-poliki  
autonomiaranzko gaitasunak garatzen has-  
ten deneraino (lau hankatan mugitu, zuti-  
tzen hasi, oinez ibili, gauzak hartu, bota,  
manipulatu...).

Horregatik esaten dugu egoera konkretu-  
tan bizipenak edukitzea eta ekintzaren egile  
aktiboa izatea dela apendizaiak, esperimen-  
tatutako bizipenetatik sortutakoa irudikatu  
ahal izateko. “Jolasean, ekintza aurrenekoa  
da, piztu egiten du errepresentazioa, horre-  
tarako erabakigarria da” (E. Wallon, P.  
Janet).

Baina hori guztia gerta dadin, beste nor-  
baitek egon behar du hor, batetik haurrak  
dituen beharrak betetzeko, eta bestetik egi-  
ten duenari esangura emateko, errekonozit-  
zeko munduaren aurrean, errealtatea aur-  
kezteko.

Mugimenduan eta jolasean ikusiko dugu



haurra bere gaitasunak erakusten, baita bere  
“angustiak” adierazten eta horiek baretzeko  
ahaleginak egiten ere. Haurrak ekintza aur-  
kezten digu berak izan dituen bizipenak  
komunikatzeko modutzat, komunikatzea  
hil ala biziko beharra baita pertsona gisa  
existitzeko. Zenbait ekintza behin eta  
berriz errepikatuko ditu bere existentziaren  
jarraikortasuna berraseguratzeko, bere oso-  
tasunean errekonozitua sentitzeko, bere iza-  
tean, bere konpetentziekin eta baita zailta-  
sunekin ere. “Jarraikortasun sentimendua  
edukitzeak agerian jartzen du baduela nor-  
berak funtzionaltasuna, irekia sentitzen  
dela norbere izatean, besteekin konpartitze-  
ko prestu” (B. Aucouturier).

Haurrak mugitzen eta jolasten sentitzen  
du plazera, eta horrek guztiak berrasegura-  
tze funtzioa betetzen du, ikasteko behar den  
lasaitasun psikologikoa lortu arte. Orduan  
egongo da prest eskola ekintza bere egiteko:  
ipuinak entzuteko, sentitzen duena hitzetan  
jartzeko, bestearekin komunikatzeko, arlo  
instrumental garatzeko... Hori horrela  
pentsamendua plazeraz betetako ekintzan  
bihurtu ahal izango du, apendizaiak sor-  
tzailea sentituko baita.

Horretara iristeko urte batzuk pasatu  
behar dute haurraren hazte prozesuan. Pro-  
zesuak ezin dira aurreratu, beraien eboluzio  
propioa daramatelako, baina hezkuntzan  
haurrekin elkarreragiten dugun helduon  
esku dago, neurri handi batean, ibilbide  
hori erarik orekatuenean eta harmoniatsue-  
nean egiten laguntzea.

# Film baten barruan zer dagoen ikusi nahi al duzu?

Hemen duzu proposamen didaktiko berri bat

**BEGIRADAREN HEZIKETA**  
Zinema aztertzen

**ILARGIAREN SEKRETUA**

**hikhasi**

PROZESUA  
GIORDA  
IRUDIA  
SOIHUDA  
EFEKTUAK  
DIS ETIHA  
MEZUA  
HISTORIA

Udako topaketetan aurkezpena eta iraillean salgai



# DVDan ondorengo atal hauek lantzeko irudiak, azalpenak, hausnarketak, galderak eta proposa-



## PROZESUA

Film bat egiten hasten denetik pantailan ikusten den arte prozesu luzea dago. Lan hori aurkezten da minutu batzuetan argazkiekin eta pelikulako irudiekin: gidoilaria gidoia idazten, gidoilaria eta zuzendaria elkarrekin, aktoreak aukeratzeko casting-a, irudien harraldiak eta grabaketa, muntaketa, musika prestatzen eta sartzen, eta karatula eta kar-  
telak egiten.

## GIDOIA

Lehenengo urratsa gidoia egitea da: gogoeta, ideiatik istoriora, gidoi literarioa, gidoi tekniko eta hizkuntza egokiaren erabilera.



## IRUDIA

Irudiak grabatzerakoan kontuan hartzen dira: enkoadraketa, plano motak, denbora, muntaketa, trantsizioak, filmaketetako trikimailuak... Hori dena erakusten da adibide grafikoekin.

## SOINUA

Zer dira irudiak soinurik gabe? Soinu efektuek eta musikak eszenari eman nahi zaion zentzua indartzen dute, irudiaren erritmoari eta asmoari laguntzen diote... Irudiak eta soinu beti sintonia egoten dira.



## EFEKUAK

Ilargiaren sekretua filman basamortuko sekuentzia Zarauzko hondartzan eta Landetan grabatu zen. Horrelako gezur txiki asko erabiltzen dira eta nola egiten diren erakusten da. Doiketa digitala, 3D-ko efektuak eta kromak erabiltzen dira horretarako.

## DISEINUA

Filmaren berri emateko kartela erabiltzen da eta ondo pentsatu eta zaindu behar da. Proba asko egiten dira koloreekin, irudiekin, formarekin eta abar kartel erakargarria izan dadin eta filmaren funtsa adieraz dezan.



## MEZUA

Film gehienek mezu eta balio batzuk igortzen dituzte istorioaren, elkarrizketen, irudien eta abarren bidez. Horien gaineko hausnarketa egitera eta ikuspegi kritikoak izatera bultzatu nahi da.

## HISTORIA

Zinemaren historiari errepasso bat ematen zaio egon diren iraultza edo aldaketa nagusiak landuz: zinemaren sorrera; lehen iraultza: soinuaren erabilera; bigarren iraultza: kolorearen erabilera; aurrerapenak eta susperraldia.



# Ahozko hizkuntza

**Lekua:** Pedagogia Fakultatea







Jolas-tailer praktiko honetan sartu bezain laster ziur gauza batek harrituko zaituela: irakasleak ez duela hitz egiten. Ikas-taroz nahastu zarela irudituko bazaizu ere, murgilduta aurkituko zaren komunikazio giro dinamiko eta erakargarriak geratzera bultzatuko zaitu eta zergatik ere argituko dizu: ahozko hizkuntzaren % 93 ez-ahozkoa delako.



## Aitor ZENARRUZABEITIA

Maisua, logopeda, psikomotrizista, musikoterapeuta eta psikopedagogo

“Mutu” fama irabazteaz gain, zer ondorio dakar estrategia didaktiko honek eskolan? Batetik haiek ere isiltzen direla. Beno, aldi bereko itzultzailearen bat salbu: “Altxatzeko esan du...”. Bestetik, gorputz semiotika –ahozkotasunaren % 55, alegia– areagotzen dela: begiradaz, jarreraz, mugimenduz, mimikaz... elkar komunikatuz. Hau lasaitasuna haur isilena, eta berdin gero eta gehiago datozkigun atzerritarrena! Den-dena ulertzen dute. Ulermena ari gara lantzen. Ikastaldearen gidatze analogiko hau, gainera, oso eraginkorra da: keinuz, piktogramen bidez, gitarraz edo bloke logikoz praxia bufonatorioak kodifikatuz batetik, eta taldegramez baliaturik bestetik, berehalaxe geratzen da muntaturik *sozioegitura interaktiboa*, hizkuntza hazteko laborategia, beraiek ere txandaz gida dezaketena.

Alabaina, trebeki mintzatzeko, sabeletik ahora hitzak dagien neurobidea ondu beharrean gaude, hots, *neuroegitura logopediko preventiboa* gelarik gela, 3 urtetik 7 urtetara egunero eta sistematikoki jorratu behar dugu. Lau geltoki ditu ahozkotasunaren % 38 hartzen duen neurobidaia honek.

**1. Arnas mekanismoa eta aireztatze neuroegitura.** Jaio eta lehendabizi pizten zaigun mekanismoa da, harrezkero automatikoan jarri eta gutxi zaintzen duguna. Badugu, halere, alor honetan premiazko zereginik. Lehena higiena: zenbait jolas egingo ditugu sudurra maitatzeko eta garbi mantentzeko. Bigarrena sudur-arnasa eta sabeleko arnasa menderatzea. Horretarako,

erlaxazioa kontaktuan landuko dugu batik bat, oso jolas bitxiak gozatuz. Hirugarrena putz egiten trebatzea da fonemak ongi aireztatzeko. Benetako zirkoa muntatzen da horrekin, materialek (turutak, burbuilak, txilibituak, haizagailuak...) hartara eramaten gaituztelarik.

**2. Ahots mekanismoa eta neuroegitura fonikoa.** Mundu zirrargarria da ahotsena. Aho itxiz (MMMM) eta aho irekiz (AAAA) fonobibrazioa orekatuko dugu burezurrak bat eginda, edo talde baten erdian kulunka edota dutxa foniko bat jasoz. Era berean, eta beti jolas interaktiboen bidez, ahotsaren kokapena arakatuko dugu. Kokapen propiozeptiboa gorputzean (inpostazioa) eta kokapen esterozeptiboa espazioan (proiekzioa). Horren ondorioz, ahots modulatu eta erakargarria izango dute gure hurrek eta, bide batez, guk geuk, irakasleok, ere bai.

**3. Ahozkate mekanismoa eta neuroegitura artikulatua.** Hauxe dugu, behar bada, gehien kostatzen zaigun trebezia. Funtsan hitzak ebakitzea ahoari mugak jartzea baino ez da, eta egungo familiok ez ditugu egiturazko mugak erabiltzen, ez omen dakigu EZETZ esaten. Testuinguru permissibo honetan, aerobic bizkorra eskaintzen diogu guk mihiari, ezpainei, masailazurrari eta masailei. Tonizitate ona (eutonia) hartzeko aurpegi masajea landuko dugu, bina-ka, hainbat materialekin (hatzekin, krema-

rekin, lastotxoekin, puxikekin, ping-pong pilotekin...). Oroitzeko eta gurasoak ere inplikatzeko, praxia-ipuina eta praxia-irudiak eskainiko dira.

**4. Entzute mekanismoa eta neuroegitura akustikoa.** Haurrak bizi duen asetze akustikoa –normalean zazpigarrenean egiten digu kasu- deskolokatu egingo dugu feltrozko mozturroak jantzita soinu-iturriak kokatuz, bereiztuz eta sekuentziatuz. Radar bilakatuko gara, isiltasunaren jabe izaki. Ondorioz, belarri fina izango du haurrak hizki-kateekiko; ezinbesteko trebezia, ongi dakigunez, dislaliak disortografiak ez akabatzen.

Arraioa! Hainbeste txorakeria analogikoren ondoren propio hitz egiten hasiko ote gara, bada? Hitz digitala nahi dut nik, %7. Lasai, ikastaro honetan hitzontzi ere bilakatuko gara, ahozko talde dinamikak barra-barra praktikatuz.

Lehenik, *elkar ezagutzeko jolasak* egingo ditugu, hizkuntz afektibo-emozionalaren poderioz elkarren arteko harremanak uztartuz. Mintzaera mota berezi hori mintzaira hunkiorra deitzen da.

Bigarrenik, *elkarrekin jarduteko jolasak* egingo ditugu, hizkuntz operatiboa dela medio auzolaneko ekintzak antolatuz. Mintzaira eraginkorraren aurrean gaude, egunero eskuzko betebeharrak kooperatiboak erregulatzen dituen.

Eta hirugarrenik, *elkarrekin eztabaidatzeko jolasak*, hizkuntz formala edo kontzeptuala (horren esperoan nengoen ni, alafede) bermatzen dutenak, argudioak kontrajartzen arituko garelarik. *Mintzaira arrazoikorra* dugu hori, gure barne lanabes mentala. Askok *mentalés* deitzen dutena.

Eta irakurri ez ezik, hori dena bizi nahi bazenu, ongi etorria. Ea denon artean frogatzen dugun ahozko hizkuntza, giza-hizkuntza naturala, eskolako arlo guztien euskarri eta lanabes dugula; harremana, jarduera eta

# Dislexia

Lekua: **Pedagogia Fakultatea**





Nolakoa da eta nola pentsatzen du dislexia duenak?

Hezkuntza kalitatea hobetzeko eta gartzeko helburuarekin sortu zen Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioa, eta beronen lehen-tasuneko arreta fokua ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak dira.

Egun, asko dira irakasle taldeak aurre egin beharreko zailtasunak. Askotan trabahoriek ikas-irakas prozesua jatera iritsi daitezke, baita irakasle-ikasle harremana ere. Hezkuntzaren inguruko zirkunstantzietan gain, kontuan izan behar lirateke eta erantzuna eman ikasteko zailtasunak dituztenen ezaugarri pertsonalak.

Irakasleak egoera zehatzen aurrean babesik gabe sentitzen dira askotan, eta ez dute jakiten zer egin ikasleren batengan "zerbait" ondo ez doala adierazten duen sintoma handi zein txiki baten aurrean. Hainbat errealitateri aurre egiteko orduan eta errealitate negatiboak gainditzea lortzeko, abiapuntua beti informazioa da, erraztu egiten duelako gainditzeko prozesua martxan jartzea.

Formazio ikastaro honek azken urteotan interes eta eztabaida gehien piztu duen ikasteko zailtasun baten inguruan dihardu: dislexia, gure ikasleriaren ehuneko altu bati eragiten dion desoreka. MECek dioenez, eskola porroteko kasuen % 25 dislexiari lotua dago. Arrazoi horregatik eta gelatan desoreka honen ehunekoa zein den ikusita, ulertzen dugu ez dela hezkuntzan diharduten irakasleek bazterrean utz dezaketen gaia.

Gizartea sentsibilizatu nahi dugu, arazo honek irakur-idazketaren aprendizaiari dituen ondorioen garrantziaz jabetzeko, eta saiakera horretan hasteko modu on bat lehenik irakasleriarengana zuzentzea dela uste dugu, ikasleen garapenean paper nagusi bat betetzen dutelako.

### Helburuak

Proiektu honekin Fundazioak hartzen duen helburu nagusia zera da: irakasleak informatzea eta formatzea dislexiari buruz eta bere tratamendu egokiari buruz. Hezkuntza premia berezitatat jotzen direnen



**Ana CUÑADO**  
Pedagogoa



**Cristina ALONSO**  
Psikologoa eta psikopedagogoa

artean sartuta ez dagoen desoreka da berau, baina horregatik erantzun gabe utzi behar ez duguna.

Formazio ikastaro honen helburu zehatzak hauek dira:

- Irakasleria dislexiaz informatzea: definizioa, etiologia, ondorioak...

- Hezkuntza komunitatea sentsibilizatzea ikasle ehuneko altu bati gelako esperientzia izugarri zailtzen dion arazo bati buruz.

- Irakasleak formatzea, dislexia sintomak agertzen direnean bere egitekoa den detekzio funtzioa ondo bete ahal izateko.


- Irakasleei jarraibideak eskaintzea arazo hori duten ikasleekin nola jokatu jakiteko.

- Osotasuneko esku-hartze baten diseinua eskaintzea, ikuspegi diziplina anitz batetik.

- Dislexia duten ikasleen ezaugarri afektibo-emozionalak ezagutzea eta ulertzea.



**Arantxa JIMENEZ**  
Pedagogoa eta psikopedagogoa



# Disgrafia

**Lekua:** Pedagogia Fakultatea





Grafiaren, marrazkiaren eta gorputz hizkuntzaren bidez ikasleak ezagutzen.



**Mikel HARBURU**  
EHUko Psikologia irakaslea

Haurren bereizgarri psikologikoak haren grafian, marrazkietan eta gorputz hizkuntzan islatzen direla pentsatzen dugu. Ondorioz, haurren bereizgarri psikologikoak ezagutzeko bide egokia izan liteke haren idatziak, marrazkiak eta gorputz hizkuntza aztertzea.

1) Haurren idatziak aztertzeko bi bide ezberdin erabiliko ditugu: alde batetik, Ajuriaguerraren taldearen *E eskala* eta *Disgrafia eskala* erabiliz aztertuko ditugu idatziak, eta beste aldetik, Peugeot-en irizpide grafologikoak erabiliko ditugu.

- Ajuriaguerraren E eskalaren *F eta M azpi-eskalen* arteko erlazioak emango dizkigu disgrafiko baten aurrean gauden ala ez jakiteko lehen aztarnak. Disgrafiko baten aurrean gauden jakiteko, 25 itemeko Disgrafia eskala asmatu zuen Ajuriaguerrak. Eskala horren arabera, belaxken, oldarkorren, traketsen edo makalen eta zehatzen idazkerak bereizten dira.

- Peugeot-en ikuspegi grafologikoaren ikuspegitik hizkien presioa, tamaina, altuera, zabalera, makurdura, lotura, erregularatasuna, biribiltasuna, angelutsutasuna, abiadura, norabidea, hizkien arteko espazioa eta marjinen zabalera aztertuko ditugu.

2) Marrazkiaren interpretaziorako irudiaren sintaxiaren printzipioak erabiliko ditugu. Besteak beste, alderdi hauek aztertuko ditugu:

- Espazio grafikoaren hiru eskualde horizontaletan eta bi eskualde bertikaletan objektuak kokatzeak duen esanahia.

- Urrezko triangeluaren indar lerro bertikal, horizontal eta diagonalek irudiaren irakurketan duten eragina.

- Irudiaren puntu inplizitu eta esplizituak, lerro inplizitu eta esplizituak. Puntuen kokapena, puntuen elkarketa eta esanahia.

- Lerro motak eta lerroek eratzen dituzten formak: zerratuak, espiralak, biribilak, karratuak eta triangeluarrak. Lerro kurba-

tsuen hedatze moldakorra, lerro espiralen hedatze egozentrikoa, angelu zorrotzen hedatze erasokorra, forma errektangeluarraren oreka, forma karratuaren egoskortasuna, eskuinera irekitako forma konkaboaren etorkizuneranzko orientazioa, ezkererantz irekitako forma konkaboaren iraganeranzko orientazioa.

- Ikuslearengana hedatzen diren kolore beroak. Ikuslearengandik urrundu eta beraierengan biltzen diren kolore hotzak. Koloreen konbinazioak eta beren esanahia.

- Irudiaren espazioa eta denbora. Irudiaren konposizioa.

- Marrazkiaren eta irudiaren irakurketaren zentzua.

3) Gorputz hizkuntza: kinesika, proxemika, paralengoia, haptika. Aurpegi adie-

mika, paralengoia, haptika. Aurpegi adierazpenak eta emozioak. Begirada, emozioa eta boterea. Proxemika: norbere espazioaren eta lurraldearen antolamendua. Jarrerak. Keinuak: enblemak, ilustratzaileak, afektu agertzaileak, erregulatzaileak eta moldatzaileak. Mugimenduen semiotikaren eta hitzen semiotikaren osagarritasuna. Ezker hemisferioak gidaturiko hizkuntzaren eta eskuin hemisferioak zuzendutako keinuen arteko harreman pribilegiatuak. Gorputzaren ezker aldea eta emozioen edo intuizioen mundua; gorputzaren eskuin aldea eta arrazoaren edo logikaren mundua. Estresa eta buruaren edo besoen mugimenduak. Sormena eta buruaren mugimenduak. Komunikazioaren funtzioak (boterea agertzea, intimitatea sortzea, sedukzioa...) eta ez hitzezko hizkuntza.

4) Ikaslearen grafiaren, marrazkiaren, gorputz hizkuntzaren eta bereizgarri psikologikoen arteko paralelismoak

Bereizgarri psikologikoa	Grafia	Irudia	Gorputz hizkuntza
Kanporkoitasuna	Normala baino handiagoa den ezkerreko marjina. Normala baino handiagoa den erdiko eskualdearen tamaina hizkietan.	Kolore biziak. Marrazkiak eskuin aldean eta eskuin aldera begira. Irudi handiak.	Gorputz jarrera irekiak, gurutzapenik gabeak. Kanpora begirako keinuak.
Nabarmendua	Hizkien erdiko eskualde garaia. Hizkien gandoarren garaiera handia.	Bertikaltasuna nagusi duten marrazkiak.	Toki ikusgarrian jarri, ahots ozenez eta besoak gora altxatuz hitz egin, kolore deigarriak erabili, burua altxata ibili.

# Idazketaren didaktika

Lekua: **Pedagogia Fakultatea**







Nola uztar daiteke hurrek letrak eta zenbakiak sortzeko edukitzen duten berezko grina, automatikoa, "denok ulertu behar dugun" eta "marrazkia-rengandik desberdina den" prozesuarekin? Galdera horri erantzuteko asmotan jardungo dugu ikastaro honetan, adin bakoitzean egiten dutena behatuz, orri-ukondo-eskuatzamarren mugimenduak gainbegiraturaz eta ikasturte bakoitzeko helburu zehatzak jartzen ahaleginduz.

Orri marratu motek lotura zuzena dute idazkeraren tamainarekin eta maila bakoitzeko aproposenak zehazteko saiakerak egingo ditugu. Bestalde, minuskulaz idazten maiuskulaz idazten bezain erraz daiteke, baldin eta lehenik letren norabidea lantzen bada eta gero lotura eraginkorrak barneratzen badira pixkanaka-pixkanaka. Izan ere, ez da berdina d eta e lotzea, m eta a, o eta l... Letrak taldeka lotzen jakiteak emango dio idazkerari (eta idazleari) erritmoa, ulergarritasuna eta askatasuna, nahi duena idazteko. Amaitzeko, goragoko mailerako, idazketa lantzeko astirik ez dagoen urteetarako, idazketa hobetzen nondik hasi aztertuko dugu.

### Egitaraua

3 urtetik 12 urtera arteko helburuak finkatuko ditugu ondoko puntuetan:

1. Ergonomia: esertzeko era egokiak, orrialdea okertzea, idazgailuak eta horiek heltzeko era egoki-ezegokiak
2. Ezkertientzako konponbideak.
3. Norabidea lantzearen garrantzia.
4. Idazkeraren neurria eta proportzioak.
5. Letren arteko loturak.
6. Bazterkiak, lerrotik lerroako espaziamendua, hitzetik hitzerakoa, letratik letrarakoa.
7. Lerroen norabidea.
8. Erritmoa.



**Irune IBARRA**  
EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea,  
grafologoa eta UEU kidea

9. Letren makurdura.

10. Presioa.

Helburu horiek finkatzeko erabilitako eskalak eta hurren laginak azalduko dira eta eskala horiek emango dizkigute idazkera "ez hain onak" bideratzeko klabeak.

Nire materialak kontsultatu nahi izanez gero, hemen dituzue erreferentziak:

- Liburua, bideoa eta gida didaktikoa: *Gustura idatziz*. Ibaizabal argitaletxea, 2000
- *Grafomotrizitatea 4 urte eta Grafomotrizitatea 5 urte*, 2001 Ibaizabal.

## Idazkeraren tamaina, letren norabidea, maiuskulak eta minuskulak, letren arteko loturak eta beste hainbat kontzeptu lantzeko dira ikastaro honetan



# Ipuinak nola kontatu

**Lekua:** Ekintza ikastola





Hurrei ipuinak kontatzen trebatzeko ikastaroa: oinarriko koordenatuak

Lehenik eta behin mintzatuko gara nola gizakiak izan duen kontakizunak *kontatzeko beharra*, betidanik. Eta gaur egun ere nola duen (dugun) behar ezinbestekoa. Izan ere, gaur egun kontuak partekatzen jarraitzen dugu. Batzuk, agian, ez dira izango oso literarioak, baina gure kontuak aineratu behar ditugu lagunekin, kafearen aitzakian, edota janari baten bueltan: elkarren arteko bizipozak, emozio tristeko pasadizoak, emozio gozoko albisteak... geure bizitzari zentzua aurkitu nahian edo. Istorioren bitartez, nolabait, geure burua ordenatzen baitugu, geure nortasuna garatzen, eta geure identifikazioa lortzen. Garai batean suaren ondoan partekatzen genituen geure kontakizunak; gaur egunean, berriz, edozein lekutan --partekatzen ditugunean, behintzat--: dendan, autoan, ile-apaindegian, lantokian... edo Interneten. Kontakizuna izan daiteke literarioa, baina izan daiteke ez-literarioa ere. Pertsonok, pertsona garenez, kontuak behar baititugu, kontuak behar baititugu geure existentzia elikatzeko. Mundua interpretatzeko ezinbesteko adierazpide kulturala delako, eta etorkizunean ere, nahiz eta robotez inguratuta egon, kontuak kontatzen eta partekatzen jarraituko dugu.

Eta zein eratako kontakizunak parteka ditzakegu? Bada, mitoak, legendak, alegiak, ipuin klasikoak, albumak...; baina baita pasadizoak, kontakizun autobiografikoak eta norberak asmatutako kontakizunak ere. Bai, norberak asmatutako kontakizunak! Horregatik, norberak asmatzeko kontakizunak ere landuko ditugu. Landu ez ezik, asmatu ere bai. Haur txikiak testuinguru hurbilak behar baitituzte, eta, askotan, kontakizunek darabilten ingurunea oso urrutikoa --arrotza ez esateagatik-- gertatzen denez, sortu egin behar izaten ditugu kontakizunak, eta haurren testuingurura egokitu.

Baina nola konta daitezke ipuinak? Hainbat modu egon litezke, baina ikastaro-



**Pello AÑORGA**  
Ipuin kontalaria eta idazlea

an hiru era aztertuko ditugu. Lehena **irakurketa ozena** --askotan kontatu baino gehiago irakurri egiten baitugu--. Horretarako, hainbat testu erabiliz, saiatuko gara esperimentatzen ea nola irakurtzen dugun jendearen aurrean, zein den gure estrategia, nola sortzen dugun komunikazioa eta abar.

Bigarrena, **kontaketa irudiez baliatua**. Horretarako, hainbat irudi aukeratu ondoren, saiatuko gara erantzuten ea interes estetikorik sortzen ote duten, ikusgarriak al diren, komunikazioaren onerako ote diren eta abar.

Eta hirugarrena, **kontaketa hutsa**. Horren bitartez aztertuko dugu ea nola erabiltzen dugun hizkuntza. Gure "zaharrek" zer eratako moldeak zituzten ipuinak kontatzeko. Elipsiaren indarra, ahozko kontaketa-estilistika, isiltasunaren garrantzia, erritmoaren zentzua. Nola erabiltzen ditugun begiak, keinuak eta imintzioak. Nola erabiltzen dugun ahotsa. Nola sortzen dugun espazio errituala. Nola aukeratzen ditugun ipuinak. Zein den kontalaria jarrera. Naturala izatearekin aski ote den. Haur txikiak edota haur handiak edo helduei kontatzea desberdina ote den. Bitartekoak nola erabil ditzakegun. Aukeratzen dugun espazioak zer baldintza behar dituen. Edozein memento ote den egokia ipuinak kontatzeko. Ipuinak kontatzen ari garenean zer irudikatzen dugun. Nola hartzen dugun

irudikatzen dugun. Nola hartzen dugun arnasa. Zer partekatzen dugun entzuleekin. Zer den magia, zer umorea eta zer konfiantza. Afektua bilatzen ote dugun, edota efektua. Emoziorik partekatzen ote dugun eta

**Nola konta daitezke ipuinak? Hainbat modu egon litezke, baina ikastaroan hiru era aztertuko ditugu: irakurketa ozena, kontaketa irudiez baliatuta eta kontaketa hutsa.**



# Euskararen erabilera

Lekua: **Pedagogia Fakultatea**





Eskola eremuan ere eragin liteke euskararen erabileran

Euskararen erabileran eragiteko jokamolde magikorik ez badago ere, egon badaude aplikatu daitezkeen neurriak, euskararen erabileran era positiboan eragiten dutenak eta zenbait adinetako hizkuntz jokaeran aldaketak esanguratsua eragiten dutenak.

Dagoeneko, ekimen dezente bideratzen da ikastetxe askotan euskararen erabileran aurrera egiteko, baina bada zer eginik oraindik ere. Dena den, errealitatearen azterketatik atera diren emaitzarik berriek ere garbi asko erakusten dute ez dela nahikoa egiten dena, ezin konforma gaitzkeela egiten dugunarekin hizkuntzaren normalizazioa helburu badugu behintzat. Egun, kasu askotan, egin kasik edozer egin da euskara bultzatzeko aitzakiarekin. Egiten den hori, ordea, egin egite hutsagatik eta inprobisazio eta moda kontuengatik ez baino, helburu nagusia lortzeko bidean eragingarria izan dadin, ongi planifikatu eta hausnartu behar baita, ikastetxe bakoitzaren errealitateatik abiatuta.

Erabileran eragin nahi duen egitasmo osatuak, besteak beste, hiru urrats jarraitu beharko ditu: lehenengoa, ikastetxearen euskararen ezagutza, erabilera eta tratuaren diagnostikoa egitea; bigarrena, helburuak definitzea eta horietara hurbiltzeko beharrik eta lehentasunak antzematea; hirugarrena, behar eta lehentasunei erantzuteko lan estrategiak eta plangintza zehatzak definitzea.

Diagnosi lan honetan, ikastetxea osatzen duten eremu eta jarduera guztiak hartu beharko ditugu kontuan. Honela, bi esku-hartze eremu nagusi behatuko ditugu, gutxienez:

1. Eremu pedagogikoa: ikastetxeko egite pedagogikoarekin (gela barrukoa nahiz kanpokoa) eta gela barruko interakzio didaktikoarekin erlazioanaturakoa.

2. Eremu instituzionala: ikastetxearen funtzionamendu, zerbitzu, harreman eta kudeaketarekin erlazioanaturakoa.



**Kristina BOAN**  
Oiartzungo Haurtzaro ikastolako irakaslea  
eta Euskaraz Bizi proiektuaren arduraduna



**Helena BARAIBAR**  
Gipuzkoako Euskaraz Biziko  
koordinatzailea Bigarren Hezkuntzan

Eremu pedagogikoa		Eremu instituzionala			
Kurrikularra		Ez kurrikularra	Ikastoletako antolaketa	Harremanak	
Kudeaketa pedagogikoa	Interakzio didaktikoa			Familia	Gizartea orokorrean
1.- Kurrikulu proiektua (gald.): 1.1. Hizkuntz arloko <i>kurrikulu</i> integratua. 1.2. Beste arloetako kurrikuluak: hizkuntzen tratuaren instrumentala, globalizazioa eta abar. 2.- <b>Egitasmo osagarriak:</b> 2.1. Euskara eta euskal kultura 2.2. Zehar lerroak 3. <b>Irakasleen prestakuntza:</b> planak (gald): Hizkuntz hobekuntza, metodologia eta abar.	1.- <b>Harremanak:</b> 1.1. Arlo bakoitzeko harreman hizkuntza (gald.) 1.2. Irakaslearen hizkuntz eredu eta hizkuntzekiko jarrera ( <i>Ulib.</i> ) 1.3. Irakasle/ikasle arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea (gald./ <i>Ulib.</i> ) 1.4. Ikasle arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea (gald./ <i>Ulib.</i> ) 2.- <b>Baliabideak:</b> 1.5. Gelaren giroa: horma-irudiak, kartelak, etab (gald./ <i>Ulib.</i> ) 1.6. Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza (gald.)	1.-Jolasaldiak ( <i>garb.</i> ) 2.-Jantokia, garraioa, zerbitzuak ( <i>garb.</i> ) 3.-Eskolaz kanpoko ekintzak ( <i>garb.</i> ) 4.-Irakasle arteko hizkuntz erabilera ( <i>Ulib/garb.</i> ) eta kalitatea. 5.-Gainontzeko giza baliabideen hizkuntza ( <i>Ulib./garb.</i> ) 6.-Ikasle arteko hizkuntz erabilera ( <i>garb.SEL</i> ) eta kalitatea. <i>Ostadar ikerketa soziolinguistikoa</i>	1.-Gobernu eta funtzionamendu-organok ( <i>Ulib.</i> ) 2.-Ekonomia, administrazioa eta dokumentazioa ( <i>Ulib.</i> ) 3.-Pertsonalaren hizkuntz profilak ( <i>Ulib.</i> ) 4.-Espazioen banaketa eta tratuaren ( <i>Ulib/gal.</i> ) 5.-Ikastetxeko errotulazio eta informazio guneak (errotulazioa, kartelak, iragarpen taulak, etab.) ( <i>Ulib.</i> )	1.-Ikastola eta gurasoen arteko harremanak, irakaslea, ikastola, etab ( <i>Ulib.</i> ) 2.-Familia barruko hizkuntz erabilera eta kalitatea ( <i>Ikaswin/gald.</i> )	1.-Beste ikastetxeetako harremanak ( <i>Ulib.</i> ) 2.-Herriko beste talde eta erakundeetako harremanak ( <i>Ulib.</i> ) 3.-Administrazioarekiko harremanak ( <i>Ulib.</i> ) 4.-Bestelako harremanak ( <i>Ulib.</i> )

Ikastetxe bakoitzeko errealitatearen azterketa honek emango digu gabezia eta indarguneen berri, eta une horretan hartu ahal izango da zenbait neurri eta hezurmitu hainbat prozedura, hizkuntz portatzen aldaketa eragingo dutenak. Euskararen erabilera areagotzeko planak era globalizatuan diseinatu behar baitira eta sistematikoki aplikatu. Bistakoa da, eskola komunitateko eragile nagusien konpromisoa eta

esku-hartzea ezinbestekoa dela planak gauzatze arrakastatsua izan dezan eta desio den hizkuntza jokaera gailendu dadin. Ikastetxeko aginte organoetatik hasita eskola orduz kanpoko kirolean entrenatzaile ari den gaztetxoaren konpromisoa eskatzen du den gisa honetako plangintzak. Hala izan ezean, aldaketa esanguratsurik ez dakarten ekintza solteetan galduko dugu denbora, indarra eta dirua.

# Artearen txokoa: Zumeta

Lekua: **Ekintza ikastola**





Tailer pedagogikoak: Erandio-ko esperientziak Zumetaren obraren inguruan

Erandion euskal pintura garaikideko erakusketak eskaini dira, jada erabiltzen ez zen Udal Merkatu zaharra hartuz. Erakusketa horien barruan esperientzia didaktiko bat ere garatu dute, eta horixe ezagutaraztea da ikastaroaren helburua.

Ekimen hura, epelde&mardaras Arte Garaikideko galeriari Erandioko Udalerriak eskainitako elkarlanetik sortu zen. epelde&mardaras galeria ezaguna da industria eraikin bereziak okupatu eta arte erakusketara espazio bihurtzeagatik. Lehen erakusketara, azaroan inauguratua, Jose Luis Zumeta pintore gipuzkoarrak (Usurbil, 1939) dimentsio handitan egindako azken obrarekin osatu zuten. Lehendik, Udalerriko hainbat ikastetxetako hezkuntza arduradunekin bilerak eginak zituzten pintura tailerak eskaintzeko asmoz; tailer horiek, erakusketaren espazioan bertan burutu beharrekoak ziren.

Tailerren helburu nagusia honakoa da: haurrak kontaktu zuzenean jartzea hainbat pintoreren obra plastikoarekin, eta erreakzio artistiko bat piztea haurrangan. Erreakzio hori lortzeko beharrezkoa da ariketa gidatuaren bidez estimulatzea, hala arlo tekniko eskainiz eta ikasleen bulkada sortzailak suspertuz.

Tailerak adin taldeka antolatzen dira, kopuruak 20tik 45era bitartekoa behar du izan, euren irakasleekin batera etorri behar dute eta eskola orduetan.

Metodologikoki, tailerak erakusketaren bisita gidatu batekin hasten dira, autorea eta erakusgai den obra zein den azalduz, oso modu xumean. Esperientzia horren berezitasuna da haurrek lan egin dezaketela erakusketaren barruan, obren estimulu bisuala aurrez aurre dutela.

Erakargarriena, bertan egindako lanek duten ludikotasuna da. Ariketak jolas gisan planteatzen dira eta lortutako erantzunak freskoak eta bat-batekoak izan dira. Asma-



**Itxaso ZUBIA**  
epelde&mardaras arte galeria



**Emilia EPELDE**  
epelde&mardaras arte galeria

men honi gorputza emateko ez dugu ahaztu behar haurrak ohitura eta ezagutza artistikoak bereganatu behar dituela, eta pinturak eskaintzen dituen materialak eta espresio metodoak ere menperatu egin behar dituela; hala bada, euskarri eta material ezberdinekin esperimentatzen da. Haurrek material bakoitzak beregan dituen ezaugarri espresiboak zein diren ikertzen eta detektatzen ikasten dute.

Lanean ematen den denborak lotura zuzena du ikasleek duten erantzuteko gaitasunarekin. Baina edozein kasutan, tailerak irauten duen bi orduen barruan amaitzen dute. Ikuspegi formaletik, ariketak espazio horretan eta une horretan erakusgai dagoen artistaren obran oinarritzen dira.

Ariketetan, neska-mutilen irudimenerako aurkezten den gaia, prozesu sortzaile-ranzko abiapuntu bat da. Haurraren Arteranzko inguratze horretan emaitzatik askatzen gara, garrantzia prozesuari emanaz batez ere. Prozesua da finean ezagutza ematen duena.

Haurren ahalegina estimulatze eta

baloratzeko modu bat da lan plastikoaren emaitza erakusketara handi batean azaltzea. Erandioko esperientziaren kasuan, erakusketak hamar egunean Merkatu zaharra bete du. Hedapenerako txartelak eta kartelak editatu dira, eta inauguraziorako festa handi bat antolatu da, komunikabideen arreta piztu duelarik. Haurrentzat eta familientzat, asebetetze iturri izan dena zera da: lanak salduta ateratako dirua GKE bati emateko izan dela, udako oporretan Saharako haurrak Erandiora ekartzen dituen.

Funtsean, saiatzen gara haurrak senti dezan berak daukan ahalmena errealitate objektibo hori errealitate subjektiboago eta pertsonalago batean eraldatzeko, hala lan artistikoaren bidez lortzen den hazkuntza pertsonalak duen garrantzia uler dezan.

# Heriotza heziketan

Lekua: **Pedagogia Fakultatea**





## Gizarte hedonista eta nahigabea

Gizakiaren adimen emozionala, bizitza eta heriotza kontzientzia modura ulertzen dituzte; hau da, gure bizitzan atseginean eta atsekabeen gertatzen zaigunaren kontzientzia modura. Dena den, atseginarean aurrean gure hormonek irri egiten duten bezala, atsekabeen beldurrak jota egon ohi gara.

Adimena esnatzeko akuilurik garrantzitsuenetakoa atsegina gerorako uzten jakitea da. Hobeto adierazten saiatuko naiz: txiklela ahortzeko ogitartekoa jan arte itxaroten dakien neskatxak, badaki geroak ekarriko dion sarian konfiantza izaten eta itxaropena ere garatzen. Ahalegina baloratzen ikasten du eta lortu beharreko helburu batek ilusioa egiten dio. Hala, kasu batzuetan haurrek ulertzen dute igandea dela dendara joan eta litxarkeriak erosteko eguna. Jabetu gaituzten astegunetan litxarkeriak ez jatearen behin behineko frustrazioaren onarpenak suposatzen duen eragiketa mentalaz, ezetza barneratu duelako "tratuaren" parte bezala (beti bete behar den tratua da hori, itxaropena konfiantza izatean datzalako).

Esperantza itxaroteko gaitasun bezala ikusten badugu, ulertuko dugu gure gizartean bizi dugun ezinegona, atsegina berehala ez betetzeak sortua. Ezinegona nahia eta beldurra talka egitean sortzen den txinparta da. Beraz, bizi garen gizarte neurrigabeko hedonista eta kontsumitzailean, zer arraio egin nahigabearekin?

Zorionez, gizakiak mina gaintzeko sendagaiak garatu ditu, gure bizi kalitatea hobetu eta heriotza duina izan dezagun lagunduz. Saihestu dezakegun minak gure bidea arinduko du, kontua ez baita martiri bihurtzea jainkozko garbikuntza lortzearen. Dena den, nire ustez nahigabe emozionala ere gogoan hartu behar da, erradiografia batean ikusten ez bada ere; nahigabe hori izango da ondorengo azalpenen ardatza.

Adierazgarria da, nahiz eta ehunetik ehuneko fidagarritasunaz jakin hil egingo garela, nola ukatzen dugun heriotza, hilezkoak bagina bezala. Trafiko istripuetako estatistikak, tabakoren eraginaz gertatzen diren heriotzak... begiratu besterik ez dugu. Halakoak urrutian edota bizilagunari gertatzen zaizkiola pentsatzen dugu, baina inoiz ez guri. Garbi dago mingarria den zerbait saihestetik, haren izatea ukatzera pasa garela, eta horra hor non eraikitzen dugun tabua. Ez dirudi, bada, gure alderik oso jokabide argia denik hilezkortasun aurreikuspenak sortzea, egokitze baliabideak gutxitzen baitizki-



**Patxi Izagirre**  
Psikoterapeuta

gute (pertsonek garapenera lotuta datozen galarak eta hotsasunak barneratzeko beharrezkoak ditugunak). Nahigabea gure itzala da, jaiotzatik bultzatzen gaituena eta azken bidaian hartzen gaituena. Batzuen aburuz: "hondartzan hiltzean, itsasoan biltzen diren olatuak gara".

Dolu elaborazioetan izan dudana esperientzia profesionalen oinarrituta, ulertzen dut semea galdu duen guraso askoren helburua dela nahigabearekin bizitzen ikatea eta bizitzari zentzu berria aurkitzea. Gizarteak, ordea, ez du hain mingarria den nahigabea ulertzen, negar etengabea deserosoa egiten baitzaio, eta nahigabetua ondo ikusteko presa handia du. Zalantzarik gabe, norbere nahigabearen beldurra da sufritzen ari diren pertsonetatik urrunarazten gaituena.

Galera baten zentzuzko elaborazioak gaixoari krisiak gaintzeko gaitasuna eman diezaiotke, pertsona hori desberdina eta indarberrituta ateraz. Dolu prozesuan zeharkatzen diren aldiak eta arimaren egoerak konplexuak dira lerro gutxi batzuetan jasotzeko, baina ausartuko nintzateke "koloreak argiaren sufrimenduak direla" esatera.

Gure nahigabearen kontzientzia hartzeak gure mugak onartzen erakusten digu, perfektionismotik alde egiten, norik bere hutsunea onartzen... hilkorrak garela jakiteak gizatiarragoak egiten gaitu. Kontua ez da nahi dugun guztia edukitzea, daukagun guztia nahi izatea da gakoa. Beharbada, era horretan ulertuko dugu ez garela gure ametsetako erraldoia, baina ezta gure konplexuetako ipotxa ere.

Osasun psikologikoa barneko askatasun prozesuetatik jo dezakegu; bere bidez egiten diegu



aurre irudimenezko mamuen esklabo bihurtzen gaituzten haur beldurrei. Maitasuna ez da tolerantzia pasibo, maitasunezko alderaketa behar dugu. Besteek guri buruz duten aurreikuspenen arabera hazi eta hezten gara. Gure bizitzak zentzua du ikuspegi horiekin bat badator, eta hala ez bada, krisi existenziala ematen da. Orain da garaia lotsatzen gintuen hura barneratu eta berreskuratzeko. Horrela soilik gaintuko dugu bide-zulo hau, jada gure maskarek ez dute balio. Gure benetakotasuna jokoan dago. Izan zaitez "gehiago bat" eta ez bat gehiago! Ez dago gure eskuetan atzera itzultzea eta ezbeharra aldatzea, baina eskura dugu nahigabea aurre egiteko modua. Gure jarreraren arabera, lorez betetako zelai batean kaka piloa aurkitzeko gai den euliaren modura jokatu dugu edota, bestela, simaur soro baten erdian lorea aurkitzen dakien tximeletaren moduan jokatu dugu.

Gaur gure seme-alaben hezkuntzan huts egin dugu "dena libre" delako lege hondagarriarekin, eta horrek ziurtasun eza ikaragarria sortzen die, zeren... non daude mugak? Nola irten egozentrisismo nartzisistatik? Zapuzketa edo frustrazioa jasateko gaitasunak etorkizuna ilusioarekin eraikitzeak aukera ematen du. Argi dago gure gizartean gehiegi banatu ditugula atsegina nahigabea bikotea. Nire ikuspegitik, bi aldeak elkartzeko behar dugun hari eroalea itxaropena da; hasieran nioren bezala, "itxaroteko gaitasuna". Konfiantzak gure autoestimua handitzen du, gure pazientzia mantsotzen du eta, batez ere, benetan nahi dugunaz (merkantilismotik at) kontziente izaten laguntzen digu. Uneko frustrazioa gaintzen duen etorkizuna ikusten ikasten dugu eta, horrela, objektua lortzean intentsitatez eta sari kutsuaz gozatzen dakigu.

Gogoan dut Anthony Hopkinsen esaldi bat; "Tierras de penumbra" filmean agertzen zen (maitasunaren eta nahigabearen inguruan egina), eta horrela dio: "bizitzan bi aldiz suertatu zait erabakitzea: lehenengoa umetan, ama hil zenean, eta ziurtasuna aukeratu nuen. Orain gizona naiz eta nire kidearen heriotzaren aurrean nahigabea aukeratu dut, orain bai baitakit gaurko maitasuna biharko nahigabearen zatia dela, hauxe baita bizitzarekin egiten dugun tratua".

Egin dezagun bizitzaren alde, eta ez bizirau-

# Adimen emozionala

**Lekua:** Pedagogia Fakultatea





“Bideak bukatzen diren lekuan, nik neurea aurkitu dut”  
(R. Tagore).

“Behin batean, bere ikasleei galderatxo bat egin zien irakasleak:

Zein da horma honen luzera?

Banan-banan, ikasle guztiak galdera erantzun zuten.

Batek “198 cm” esan zuen. Beste batek “203 cm” erantzun zion.

Horrela, ikasle guztiak bere iritzia azaldu zuten.

Irakasleak, orduan, zera galdetu zuen: Ba al dakizue zein den erantzun zuzena?

“Ez”, esan zioten ikasleek.

Erantzun zuzena **“Ez Dakit”** da”.

Istorio horren jarraibideari eutsiz, eta jakingura oroz, ikertuko dugun gaira hurbilketa eder, sendo eta dibertigarri bat egin dezakegu.

Ikastaro honek bere alde teorikoa izango du, baina errealitatean finkatuta dagoenez, beti ezaugarriak gauzatzeko prest egongo gara.

Teoriaren aldetik, 4.500 urteko tradizioa eta ezaugarriak ditugu, ikuspegi orokorra eta sakona finkatzeko.

Gure ikerketen bitartez ustekabeko paisaiak ikusiko ditugu eta ezusteko aurkikuntzak egingo ditugu.

Hona hemen erabiliko ditugun hornidurak: psikologia, filosofia, antropologia, kontu tradizionalak, mitologia, historia... Praktikarako tresnak, berriz, hauek izango dira: umorea, dinamikak, elkarrizketak eta hausnarketa pertsonala.

Ez dugu beldurrik izan behar. Normalki, emozioekin erlazio hurbilegiak izatea ez da denon gustukoa, emozioen kemena gure baitan sentitzeak kontrolaren ilusioa gutxitzen digu-eta.

### Nondik hasi?

Egin behar dugun lehenengo gauza gure bizitzari so egitea da. Besteekin lan egin nahi badugu, lehendabizi guk egin behar dugu bidea, zer sentitzen den jakiteko.



**Ibon DE LA CRUZ**  
Psikologoa

Gure emozioak nolakoak diren ikusi behar dugu bizipenen bitartez. Horrela ikusiko dugu nolakoak diren gure baldintzapeanak. Lan hau egiteko bi gauza behar izango ditugu, antzinako zaldunen gisan: ausardia eta egiazaletasun pertsonala.

Dinamika dibertigarrien bitartez, gure oinarri emozionalak aurkituko ditugu. Oinarri horiek adimen emozionalaren harroinpeak izango dira. Emozio instintibok ez baditugu ezagutzen, ez dago sentimenduekin lan egiterik.

Ikastaroko memento honetan, gure zentzumenak zorrotzen dira, eta gauza harrigarri batzuk argi ikusten ditugu:

- Emozioak oso logikoak dira, baina beren logika berezia daukate.

- Emozioaren munduan, gauza gehienak alderantziz daude, hankaz gora eta buruz behera.

- Emozioaren mundua aberastasun izugarriaren giltza da, begirunez erabiltzen badugu.

Bigarren pausoa, errealitatea nola den aztertzea da: kasu askotan, oinazez bizi ditugun sentimenduak, moztuak besterik ez dira.

Inguratzen gaituzten arazo larrien benetakoa jatorria ulertzea ez da batere erraza. Hainbat kasu praktiko landuko ditugu denon artean, gure errealitatean sakontzeko, jatorriak ikusteko ahalmena garatzeko



asmoz.

Azken pausoa da praktikoena. Prozesu emozionalak ezagutzen baditugu, eta arazo-en jatorria ikusten badugu, zer egin errealtateari erantzun eraginkorrak emateko?

Emozioen legeak ez dira mundu honetako lege bakarrak, eta egin nahi dugun edozein aldaketak errealitatean oinarrituta egon behar du. Pauso honetan, askatasunez pentsatu behar dugu, baina plangintzak egiterakoan praktikoki pentsatu behar dugu.

Ikastaro honen helburu nagusia partaideek tresna berriak eta praktikoak eskuratzea da: emozioen ikuspegi berri eta praktikoa, proposamen praktikoa, emozioak sentitzeko hainbat dinamika, partaideek egokitutako programa bat, eta irribarre ugari, noski.

Zer ekarri behar dute partaideek ikastaro honetara? Jakingura, norberaren esperientzia, bakoitzak pentsatzen duena esateko adorea eta ondo pasatzeko gogoia.

**Besteekin lan egin nahi badugu, lehendabizi guk egin behar dugu bidea, zer sentitzen den jakiteko. Gure emozioak nolakoak diren ikusi behar dugu bizipenen bidez**

# Harremanak gelan

Lekua: **Pedagogia Fakultatea**





Ikasleen arteko harremanak eta gatazken ebazpen bake-tsua ikastetxean

Ikastetxeek, betidanik, ikasleei pertsona helduak bilakatzeko prozesuan lagundu die. Horregatik, gaur egun eskolen lana pluralismoan oinarritutako indarkeriarik gabeko bizimodurako prestakuntzara zuzendua egun beharko litzateke.

Gaur egun ikastetxeetan agerian dauden arazo askok diziplina ezarekin, intolerantziarekin eta indarkeriarekin zerikusia dute. Indarkeriak ez ditu ideologiak, arrazak, erlijioak edo sexuak bereizten, eragin latzak izanik eskolan eta baita horren inguruko komunitatean ere. Ondorio desegoki horiek, politikoak, generozkoak nahiz sozialak izan, eragin zuzena dute ikaslearen garapenean, batez ere bere gaitasun akademiko eta sozialetan.

Jakina da sendia eta eskola haurraren eragin handien duten bi eragile direla, bertan ikasiko baitute elkarlanerako prest agertzen, lehiatzen, maitatzen, gorrotatzen... elkarren artean bizitzen. Beraz, gure komunitateetatik indarkeria murriztea nahi badugu, gure gazteak bake bideetan hezi beharko ditugu. Bakea norberarengandik hasten baita.

Bizikidetzarako giro egoki bat lortzea, bai ikastetxe osoan bai ikasgelan, egiteko modu berezi batzuei lotua dago. Diziplina eta ordena bezalako prozesuak eskola antolakuntzan oinarritu behar dira, ikastetxean nahiz ikasgelan klima positibo bat sortuz. Nahiz eta gure gizarte egiturak batzuetan aurka egin, guretzat ikastetxeak ikasleak hazi eta garatzen diren bizikidetzak baketsuko espazioak dira. Ikastetxeetan klima positiboa sortzeko gaitasunik izango da, negoziaketa eta elkartzeko prozesutan oinarritzen bagara.

Eskola haurraren garapen sozial, afektibo eta moralerako inguru egokia da, etengabe ikasketa esparrua baita. Bertan ikasleak bere jokabideak, emozioak, trebetasunak, arauak eta abar praktikatzeko dituzte, batez ere. Ikaslearen gaitasunen garapena, trebetasun sozialak, eta parte hartzeko eta bestearekiko errespetuzko balioak lantzeko ikasgela ingurune pribilegiatu bat izango da. Ikaslearentzat **gela bere gizarte txiki bilakatuko**



**Blanca KEREJETA**  
Ordiziako Berritzeguneko Bizikidetzazuzendaria

da, bertan biziko dituzte eguneroko hainbat esperientzia eta bertan ikasiko du bere gatazkek modu positiboan eta baketsuan konpontzen.

Hezkuntza komunitatean Eskola Inklusiborako parte-hartze bideak irekitzen ari dira. Bake kultura berri batean Gatazken Ebazpen Baketsuak lantzeko bide berriak irekitzen dituzten ikastetxeekin amestu nahi dugu, eta batzuk errealitatea bihurtzen ari dira.

Ramon Alzate EHUko katedratikoak zera dio: "Gatazken ebazpenean edo bizikidetzan, berdina baita, oinarritzen den hezkuntzak bere helburuak betetzeko eta, aldi berean, ikasleek beren arduratan, harremanetan eta eguneroko gatazkei aurre egiteko moduan aldaketa esanguratsu bat lortzeko, ikaskuntza horren azpian dauden balio eta printzipioetara egokitu beharko dugu eskola erakundea. Horrek eskolan aldaketa sistemiko bat eman behar dela esan nahi du, ez soilik aldaketa kurrikular bat. Jarrera arduratsu baten garapena lortzeko oztupoak ikastetxe guztian zehar daude. Ikaskuntza aldatzeko saiakerak ez badoaz sistema aldaketa batekin, oso zaila izango da esperotako emaitzak lortzea".

Hori guztia Ikastetxeen Bizikidetzak Eredu Globala deitzen dugunarekin lotuta dago (Coleman eta Deutsch 2000, Raider 1995, Sandy 2001, Alzate 2003). Autore horiek esku hartzeko eta eskola gatazken ebazpenerako programak edo bizikidetzak programak martxan jartzeko bost eremu garrantzitsu identifikatzen dituzte: dizipli-



**Amaia AGIRRE**  
GEUZ Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroko kidea


na sistema, curriculum, pedagogia, eskolako kultura eta familia edo komunitatea. Gure esku-hartze guztietan defendatzen eta erabiltzen dugun ikuspuntuak bost eremu horiek kontuan hartzen dituzte jardura integral batean. Helburua: bizikidetzak, gatazken eraldapen baketsua eta aniztasunaren printzipioak ikastetxean gertatzen diren harreman guztietan eragina izatea delarik.

Ikasleen arteko harremanak hobetu, asertiboak izan daitezkeen lagundu, komunikatzen ikasi, ikaskidea gure eskubide eta betebeharrak dituen pertsona gisa kontuan izaten ikasi, pertsonak errespetatu... Hori dena lortzea posible izango da, ikastetxean eta, batez ere, gelan elkarlana eta gatazkei modu positiboan aurre egiteko estrategiak sustatzen badira, ikastetxeak ikasle guztiak onartuak diren toki seguru bilakatu.

Ikastaro honek gure eguneroko praktikan oinarriturik hausnarketa eta aurrerabideak egiteko ekarpen batzuk egin nahi ditu. Bestalde, gure ikasleak etorkizuneko gizarte demokratiko bateko herritarretan hezitzeko, gelako eguneroko lanean lagunduko diguten estrategia eta tresna batzuk landuko dira. Beraz, teoria eta praktika uztartzea izango da helburua.

# Estresa irakaskuntzan

Lekua: **Ekintza ikastola**







Gaur egun inor ez da harritzen irakaskuntzan estresaren arazoaz hitz egiten entzuten duenean. Gauza jakina da osasun arazo hori edo parekoak - depresioa adibidez - jasateko arrisku gehien dituen lanbidetako bat irakasleena dela.

Ez da harritzekoa hala izatea abiadura handiz aldatzen ari den mundu honetan, aurkikuntzak etengabeak diren honetan eta balioen nahasketa handia den honetan; izan ere, ezagutza horien eta, hein batean, balioen igorleak gure gizarteko irakasleak dira.

Lehen, irakaslearen irudia boterearekin lotzen zen, errespetua eta begirunea sortzen zituen. Gaur egun, egoera beste muturrera igaro da; botereduna haurra da orain, zenbait kasutan benetako tirano bihurtu da gurasoen onespenearekin. Egoera horretan, irakaslea defentsarik gabe gelditzen da.

Badira estresa agertzeko giroa sorrarazten duten beste zenbait faktore ere.

- Laneko baldintza fisikoak eta ingurune-koak, batzuetan ez baitira osasungarriak. Altzari, argi eta soinu desegokiak ere erosotasunik eta sosegurik eza sorrarazten dituzte. Irakasleak gutxitan ohartzten dira horretaz.

- Benetako lankidetzan oinarritutako harremanen gabezia da beste faktore bat. Horrek irakasleek benetako sentimenduak adieraztea oztopatzen du, bai gai pedagogikoen inguruan eta baita ikasleekiko, lankideekiko edota zuzendaritzarekiko harremanen inguruan ere.

- Hezkuntza sistemako etengabeko aldaketek segurtasun eza sortzen dute eta irakasleak galduta sentitzen dira.

- Gaur egungo gain-informazioak (Internet, telebista...) hauxe ekarri du: sarritan ikasleak irakasleak baino lehenago hartzea informazioa. Ondorioz, irakasleak bere rola eta esanahia birplanteatu behar ditu.

Faktore sozial eta profesional horiei pertsonalak ere gehitu behar zaizkie: bizitzako eskakizunei eta frustrazioei aurre egiteko,



## Jesus COSIDO

Bartzelonako terapeuta humanista eta  
Counseling-en espezializatutako aholkulari  
pertsonala



## Marisabel KEREJETA

Psikologoa eta terapeuta

aldez aurretik nolako oinarrizko jarrera duen norberak. Batzuek besteak baino hobeto egokitzen dira estres egoeretan. Norberaren nortasunak eta balioen eta jarreraren sistemak zerikusi handia dute.

Posible al da horri aurre egitea? Nola erantzun aipatu ditugun zailtasun profesionali eta sozialei? Irakasleen arteko konfiantzak eta elkarlanak lagundu al dezake? Ba al dago estresari aurre hartzen laguntzen duen metodori edo ezagutzari? Ba al dago galdutako ongizatea, oreka eta autoestimua berreskuratzeko metodori edo ezagutzari?

Hori landuko dugu ikastaroan. Gaur egun onarpen zabala duten joera psikologietan oinarritutako ezagutza teorikoak ezagutuko ditugu. Edonola ere, ikastaroa



## Gurutze ZIPITRIA

Irakaslea eta psikoterapeuta

praktikoa eta bizipenetan oinarritutakoa izango da. Parte-hartzaileen esperientzien trukaketa bultzatuko da. Talde dinamiketako konfiantza giroa sortzen lagunduko digute, eta horrela norberak estresaren aurrean izaten dituen jarrerak landuko ditugu. Eta baita norberak bere buruarekin eta besteekin duen erlazioa ere.

Oreka, erlaxazioa eta barne ongizatea errazten dituzten teknikak ikusiko ditugu, eta baita "bestea" rengana irekitzekoak eta entzutekoak ere. Eskolako gatazkaren kudeaketa positiboa eta kooperatiboa landuko dugu.

Bi egunetako ikastaroan ezin da aldaketa sakonik egin, baina posible da, alde batetik estres sindromearen ondorezaren oinarrian dauden zenbait gakoren kontzientzia hartzea; eta bestetik jarrera positiboagoa, baikorragoa eta atseginagoa hartzea irakaskuntza zereginerako.

Jendeak ondo pasatzen duen eta gozatzen duen ikastaroa da, eta erlaxatu egiten da; baina aldi berean, hausnarketarako eta kontzientzia hartzeko espazioa sortzen da.

Parte-hartzaileek ikasleekin praktikan



# **Ikas-estilo eta estrategiak**

**Lekua: Pedagogia Fakultatea**







Zein da metodorik onena ezer ikasteko (hizkuntza bat, matematikak...)? Ala irakasteko?

Metodoaren kontzeptua izan da nagusi eduki ororen didaktikaren historian. Irakasleok, gaur egun, jakin badakigu arrakasta edo porrota ez dela bereziki metodo arazoa, pertsona arazoa baizik. Eta pertsona esaten dugunean, bere osotasunean ari gara: gaitasun, motibazio, nortasun, jarrera, ezaugarri kognitibo, estrategia... Azken batean, metodoa urrutiko lagungarri bat besterik ez da-eta. Hortik sortu dira ikerketa-bide berri batzuk, besteak beste, ikaslearengan ardaztutako irakaskuntza (Rubin eta Thompson, 1988; Oller eta Richards, 1973). Horrelako planteamenduek hainbat fenomeno hartu dituzte kontuan: adina, jarrerak, motibazioa, nortasuna, ikas-estiloa, ikas-estrategiak eta abar.

Candlin-ek (1991) azpimarratzen zuen garrantzi handiko honako galdera hau: nola eta zergatik lortzen dute ikasle batzuek ikastea, beste batzuek oso gutxi ikasten dutenean? Esan liteke, galdera honek kezka aldatu egin dituela: edukien transmisio egokia bilatzetik, ikasleak ezer bereganatzeko behar dituen trebetasun eta estrategia egokiak bilatzera. Beraz, metodologiaren nagusitasunetik psikologia kognitiboaren nagusitasunera pasa gara. Eta ezer aztertzekeo garaian, ikuspegi integrala izatea ezinbestekoa dela. Gure kasuan, ikuspegi orokor honetan bereziki arreta ipini diogu ondoko kontzeptuei: ikas-estiloak eta ikas-estrategiei.

Ikuspegi integralean kokaturik, ikerketa bat gauzatu nuen, bereziki bi erronka izan zituen: ikaslearengan ardaztutako irakaskuntza abiapuntutzat harturik, euskararikasle helduen artean H2 ikastea, ikas-estiloak eta ikas-estrategiak esplizituki aintzat hartzen zituen metodologiak zer nolako eragina izan zezakeen ikaslearen motibazioan, autoestimuan eta euskararen erabileran aztertzea eta, bide batez, eskuhartze programa pedagogiko bat eraikitzea ikerketa honetako emaitzak kontuan hartu-



## Iñaki PIKABEA

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien  
Fakultateko irakaslea



rik. Ikerketa honetako emaitzak aintzat hartuta, egoki ikusi dut bertako zenbait atal beste hainbat esparrutara ere zabaltzea, aplikagarri izan daitezkeelakoan, ez soilik hizkuntza-ikaskuntzaren esparruan.

Ikastaro honetan ez gara ikas-estiloetan eta ikas-estrategietan aditu bihurtuko, ez baitago horretarako behar adinako tarterik. Hala ere, badugu asmoa bi esparru horien garrantzia ikusaraztekoa eta ikuspegi zabal samarra eskaintzekoa. Irakasle aditu askoren kasuan, aurrez ezagun zituen ideia eta susmoak berraztertuko dira, edota esperientziatik jasotako jakinduriari azalpen teorikoak erantsiko zaizkio. Bide batez, hainbat ariketa-eredu ere eskainiko dira, etorkizunean nork bere lanean egokitu eta burutu ahal izatekoak.

**Nola eta zergatik lortzen dute ikasle batzuek ikastea, beste batzuek oso gutxi ikasten dutenean? Edukiez gain, ikasleak ezer bereganatzeko behar dituen trebetasun eta estrategia egokiak daude horren azpian**

# Arratsaldeetako saio libreak

**Lekua:** Pedagogia Fakultatea





# Arratsaldeetako saio libreak Nahi duten guztientzat irekiak



## Uztailak 4 Arratsaldeko 16:00etan

**Eskolaldirako euskal curriculumaren** aurkezpena.

Zer da Eskolaldirako Euskal Curriculumuma? Zertan eragingo digu? Nola ezarriko da?

Galdera horiei erantzungo die Pedro Mari Legarretak, egitasmo horren zuzendaritza taldeko kideak.



## Uztailak 5 Arratsaldeko 16:00etan

**Begiradaren heziketa** material didaktikoaren aurkezpena

“Ilargiaren sekretua” filmaren oinarrituta, material didaktiko bat egin du Hik Hasik DVD euskarrian. Film bat nola egiten den erakusten du atalka: prozesua, gidoia, irudia, musika, efektu bereziak, diseinua, mezua, zinemaren historia...

Alicia Garaialde filmaren zuzendariak eta Joxe Mari Auzmendi Hik Hasiko kideak aurkeztuko dute materiala.



## Uztailak 5 Arratsaldeko 16:00etan

**Ipuin kontaketa**

Pello Añorgak ipuin sorta baten bidez azalduko du haurrei kontakete-ko zer modu erabili izan dituen bere ibilbidean zehar.

# hik hasi

## zure parte-hartzea

### ezinbestekoa du harpide zaitez!

### 40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. Deitura .....Tel.:.....

Helbidea .....Posta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN .....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA  
SARIAK**

(BEZ barne)

**40 euro**

**hik hasi**

Euskal  
heziketarako  
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59  
Aguila eraikina 1. solairua  
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



# musutruk eraman



## Hilabete honetan:

Joseba Sarrionandia

Xabier Gantzarain

Koldobike Mujika

Mikel Reparaz

Eider Rodriguez

Jon Maia

Lutxo Egia

Jabier Muguruza

Beatriz Anitua

Jim Merkel

Juanma Bajo Ulloa

Ariane Lopez-Huici

Omar Faruk

Erlantz Urtasun

Aingeru Epaltza

Lander Garro

Gontzal Agote

Jokin

Zaldi Eroa

Iván Giménez

Ander Lipus...



**948 22 71 25**

telefonora deitu edo

**nabarra@nabarreraia.com**

posta elektronikora idatzi,

zure datuak utzi\*,

eta Nabarra aldizkaria

**bi hilabetez dohainik**

jasoko duzu etxean

(\*) Izen-abizenak, helbidea eta telefonoa

Izen-Abizenak \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_ Posta Kodea \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_ Herrialdea \_\_\_\_\_

Jaiotze data \_\_\_\_\_

Telefono zenbakia \_\_\_\_\_ E-mail helbidia \_\_\_\_\_

Kontu korrante zenbakia \_\_\_\_\_

Harpidetza: 33 euro urtean / 12 aldizkari

NABARRA, Antso Azkarra 26, 9. bulegoa · 31008 Iruñea · Tel. 948 22 71 25 · nabarra@nabarreraia.com

**NABARRA**  
Euskal Herriko kultur  
eta gizarte hilabetekaria



## INGELESEK

ingelesez irakurtzen dituzte eguneko berriak

### A Smelly Flower From a Refined Family

By CAROL BALOGH EVANS

ANDY BAKER WAS AN HEIR to a substantial fortune and they have called the attention of the community to himself through his activities in the world of fashion. He is a member of the House of Commons and a member of the House of Lords. He is a member of the House of Commons and a member of the House of Lords. He is a member of the House of Commons and a member of the House of Lords. He is a member of the House of Commons and a member of the House of Lords.

When they who read the headlines of the Daily Telegraph about the death of the Princess Diana, "Some people have thought it was related to some other big world event."

Some of the headlines of the Daily Telegraph were not very different. They were not only about the fact that she was dead, but also about the fact that she was a member of the House of Commons and a member of the House of Lords.

Some of the headlines of the Daily Telegraph were not very different. They were not only about the fact that she was dead, but also about the fact that she was a member of the House of Commons and a member of the House of Lords.

## ESPAINOLEK

espainolez irakurtzen dituzte eguneko berriak

### ► Cuatro personas fueron detenidas tras nueve horas de disturbios

BARCELONA, 27 DE FEBRERO

Las autoridades de la policía de Barcelona han informado de la detención de cuatro personas tras nueve horas de disturbios en el barrio de Sant Gervasi de la Font.

Al final de los disturbios, el distrito de Sant Gervasi de la Font ha quedado vacío de personas. Los disturbios comenzaron a las 15.00 horas y se prolongaron hasta las 22.00 horas.

cuatro de los cuales por el uso de armas.

CONDAMNACIONES

Tres personas de 71 años, 66 años y 65 años han sido condenadas por los disturbios de Sant Gervasi de la Font.

El juez de lo penal de Barcelona ha condenado a tres personas a penas de prisión por los disturbios de Sant Gervasi de la Font.

## FRANTSESEK

frantsesez irakurtzen dituzte eguneko berriak

### de l'histoire du XX<sup>e</sup> siècle

BARCELONA

Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture.

Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture. Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture.

Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture. Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture.

Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture. Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture.

Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture. Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture.

Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture. Le président de la République a nommé un nouveau ministre de la Culture.

# EUSKALDUNOK ERE EUSKARAZ IRAKURTZEN DITUGU EGUNEKO BERRIAK



Egin zaitez harpidedun:  
943 30 43 45  
harpidetza@berria.info

#### HARPIDEDUNEN ABANTAILAK

1. Kioskoko prezioa baino %9 merkeago
2. Banaketa doan: etxean, lantokian...
3. Harpidedunaren Kioskoan zozketak eta opariak
4. Promozioetan abantailak